

...eta Kitto!

2018-X-19

1074 zkia.

Julen Zabaletaren Gure Balioak!

Urriak 15 Azaroak 11
2018 JARDUNALDIAK

 **ZTB** Zientzia
Teknologia
Berrikuntza
Bergara

Informazioa: www.ztbergara.eus · 943769003



ERAKUSKETAK

AZOKA

IKASLEENTZAKO JARDUERAK

HITZALDIAK

TAILERRAK

Antolatzaileak:





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkaritea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta irizien erantzunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Alkatea Guardia Zibilak antolatutako ekitaldietan –

Urriaren 12an, Hispanitate eguna zela eta, Miguel de los Toyos alkatea Guardia Zibilak antolatutako ekitaldietan egon zen.

Sortuz, Eibarren polizia espainiarrek eta guardia zibilak soberan daude. Horregatik ez dugu ulertzen egun horretan alkateak zer egiten zuen Guardia Zibilak antolatutako ekitaldietan.

Orain dela urtebete aukera izan genuen ikusteko espainiar poliziak eta guardia zibilek nola jipoitu zituzten Kataluniako herritarrek. Eta iragan abenduan berri, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Kriminologia Institutuak 1960-2014 aldiran Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan izandako tortura kasuen berri eman zuten informe ofizial batean. Guztira 4.113 tortura kasu agertzen dira aipatutako informe ofizialean,

gehienak polizia espainiarrek eta guardia zibilek egindakoak. Kasu horien artean badira tortura salatu duten eibartarrak. Hala ere, Eibarko alkateak Guardia Zibilek ekitaldietan parte hartu zuen.

Euskal gizarteak bakea eta konponbidea behar ditu eta hori lortzeko ezinbestekoa da herri honen desmilitarizazioa bururaino eramatea. ETAk orain dela zazpi urte amaitu zuen behin betiko bere jardura armatua, eta 60 urteko ibilbideari agur esan dio berriki. Armadak eta Estatuko segurtasun indarrek ere desmilitarizazio horretan aurrerapausoak eman beharko dituzte indarkeria adierazpen guztiak behingoz amaitzeko. Horregatik diogu Eibartik eta Euskal Heritik alde egin behar dutela.

Eibarko Sortu

...eta kitto!-ri buruzko inkesta egingo du AZTIKER enpresak hurrengo asteetan

Astelehenetik aurrera, AZTIKER enpresak ...eta kitto! astekariari buruzko ikerketa egingo du herritarren artean, jendeak ...eta kitto! aldizkaria ezagutzen duen jakiteko eta aldizkariari buruzko iritzia jasotzeko. Guztira 600 inkesta egingo dira, gehienak telefonoz. Baliteke zeuek ere telefono deiak jasotzea edo AZTIKER-eko inkestazailak zeuen etxeetara joatea. Horrela bada, biziki eskertuko genizueke galderei erantzutea. Informazio gehiago 7. orrialdean.

Azaroaren 1eko -Domusantu egunazubia dela eta, aste horretan (hemendik 15 egunera) ez da alerik izango zuen buzoietan. Kontuan izan, beraz, ale horretarako zorion-agurrik edo bestelako informaziorik kaleratu nahi baduzue. Datorren asteko barixakuan normaltasunez kaleratuko dugun alea izan daiteke aipatutako horretarako.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MARTXANDISTA.- Eskolan piper, martxando egiten duena. *"Gure taillarreko uezaba, ume denporan makaleko martxandistia izan zan".*

MARTXANDO EGIN.- Eskolan piper egin. *"Gaur eguraldi ona dago eta martxando egingo dogu kurbura juateko".*

astean esanak

"Peruko produktu ekologiko bat Euskal Herrian kontsumitzea zilegi al da? Izango duen karbonoaren aztarna ez al dugu kontuan hartu behar? Zenbaitetan jatorrizko herrialdean ez dute elikagai hori jateko aukerarik; kinoaren kasuan, adibidez. Hemen ere baditugu zerealak eta hori jasangarriagoa da, produktu horiek kontsumituta bertako ekonomia sustatzeaz gain. Elikagai ekologiko guztiak ere ez dira osasuntsuak: txokolatearen lehenengo osagaia azukrea bada, berau ekologikoa izanik ere, ez da osasuntsua izango"

(AITZIBER AIZPURU, NUTRIZIONISTA)

"Urriaren 1eko Kataluniako erreferendumaren urteurrenean, Espainiako telebistak zehaztu digu zenbat enpresek egin duten alde prozesua martxan jarri zenetik; ez digu esan, ordea, denboraldi berean baten bat finkatu ote den. Kontuak bi irakurketa ditu: zeinen kaltegarria izan den, eta den, independentismoa ekonomiarako, edo zeinen lotsagabe saiatu den botere ekonomikoa jendearen erabaki politikoak baldintzatzen. Albiste berean, erreferenduma bakarrik senti ez zedin, ilegal izenondoa paratu diote ondoan solasa ahoskatu duten aldiro. Ez da diferentzia handirik PPren hankapeko informazioarekin"

(SANTI LEONE, HISTORIALARIA)

"Testu bat irakurtzeko erraztasuna erabilitako tipografian dago neurri handian. Paperezko egunkarian erabiltzen den *Times New Roman* ez da hain ondo ikusten ordenagailuan. Pantailarako sortu ziren, horregatik, *Tahoma* edo *Trebuchet*. Bada euskarri bietan ondo irakurtzen den *Verdana* ere. Alcuino de York VIII. mendean asmatutako minuskula karolingioa ere ederra izan zen, gure alfabeto latinoak bakarrik maiuskulak zituelako sortu zenean. Gaur egun, askoz errazago egiten zaigu minuskulaz irakurtzea. Irakurtzea zailtzen duen tipografia berri bat asmatu dute orain, irakurritakoa ahaztuko ez dugulakoan sinetsita"

(FELIX ARES, ZIENTZIALARIA)

**JOSU MENDIKUTE**

Eibar, igela ur epeletan

Urez betetako ontzi bi ikusi ditu igelak. Bat aukeratu eta, barrura salto egin bezain laster, konturatu da ura irakiten dagoela. Azkar egin du ihes erretzeko arriskutik. Irakiten utzi du lapikoa, eta joan da albokora. Ura epel dago han, eta goxotasunak eman dio pentsatzen hasteko aukera. Hanburgesen erregea dator Eibarrera, fabrika zahar bat kolorez estaltzera. Opariak ere paperez estalita jasotzen ditugu eta, ireki arte, ezin jakin "kaka paperian batuta" ote den, usaina ez badiogu antzematen. Aterako ditugu argazkiak museorako, botako dugu eraikina, eta jarriko dugu Burger bat ospitalaren alboan. Dena osasunaren alde. Sortuko du enplegua patatak frijitzeko, zaborra botatzeko.

Ur epeletan dago igela, eta pentsatu du ea zergatik egon horren aurka. Industriadik ez da etorriko. Zaila da fabrika zaharrak berritzea. Eta orografia! Aitzakirik ez zaio falta igelari ur epeletan egoteko. Baina lapikoa sutan, temperatura igotzen doa. Eta igela, barruan. Gorputza moldatzen zaio uraren temperaturari. Horretan gastatuko du daukan energia, eta urak irakiterako, galdua izango du indarra berriro jauzi egiteko. Hor hilko da igela. Baina berak ez daki, gustora baitago ur epeletan. Aitzakien mundua elikatzen jarraitu du bere plazerrean. Lurzoru industriala? Ez dago eta maldarik gabeko ingururik. Izan ere, berotuko, asaldatuko, suminduko gara daukagun bakarrean ez baditugu entrenamendurako zelaia egiten. Epel-epel, lodi-lodi, punta motza... paperez ondo batu dezagun Mariandresan korotza.

Jubilauendako ikastarua eta Gernikara txangua

Untzagako jubilauek etxeak telefono mugikorra zelan erabili ikasi nahi dabeneandako oinarrizko ikastarua antolatu dau azarorako (5, 12 eta 19, astelehenak), 10:00etatik 12:00etara. Interesa dakanak lehen pisuan dagan bulegora jua biharko dau izena emotera. Horrekin batera, urriaren 29rako Gernikara juateko exkursiua antolatu dabe, urriko azken asteleheneko ferixia egingo dala aprobetxauta. Autobusez juango dira, 10:30xetan Ego Gaiñeko geltokitik urtenda. Ferixia bisitatzeko denporia eukiko dau jendiak, 14:00xetan atzera be autobusa hartu arte. Ereñon, Arita-Berri jatetxian bazkalduko dabe eta, jarraixan, dantzaldixa egongo da. Urteeria jubilaue etxe guztietako bazkidiendako zabalik dago eta jua nahi dabena 27 euro ordaindu biharko dittu.



Ingeniaritza Eskolako ikaslien graduaziño ekitaldixa

Aurreko astian banatu zetsazen diplomak Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduako 4. prozedurako 65 titulatuari, Hezkuntza Esparruko areto nagusian egindako ekitaldixan. Unibersidadeko ordezkariak emondako datuen arabera, aurrekuan titulua jaso eben ikaslien %40 baiño gehixagok



mugikortasun programetan hartu dau parte eta %60xak baiño gehixagok, barriz, 35 enpresa eta erakundetan praktikak egin dittu. Ekitaldixan Cristina Uriarte, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, Agustin Erkizia, UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko errektore-ordia, Miguel de los Toyos, Eibar-ko alkatea, Xabier Ostolaza, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako zuzendaria eta Oihana Aristondo, Eibar-ko ataleko koordinatzailea egon ziran, bestiak beste.

Haur lapurtuen inguruko billeria egingo dabe 25ian

Frankismo sasoiari hasi eta 90. Hamarkadara-raiño luzatu zan haur jaixobarririk lapurtzeko tramaren inguruan berba egitteko billeria egingo da datorren astian, eguenian, 19:30xetan Portalean (billera gelan). Eibarko Maternidarian semia lapurtu zetsen Edita Beristainen ekimenez, Eibarren eta inguruko beste herri batzuetan gertatu ziran haur lapurretara horren inguruan berba egitteko asmuarekin egin zan lehen billeria uztaillian eta, Portalean alkartu ziranen artian horren susmoa daken beste famelixa batzuk be agertu ziran. Euren artian lehen kontaktua egin eta gero, uda ostian atzera be billeria egitteko ados ipiñi ziran, baktotxak dakan informaziñua bestiekin konpartitzeko eta



gertatutakuaren inguruan berba egitteko. Datorren asteko billeria gaixarekin interesa daken guztien-dako atiak zabalik egingo dabe.



Iruñean egon dira Pagatxa alkartekuak

Pagatxa emakume alkartekuak Iruñean egon ziran martitzenian, bidaia kulturala egitten. Erretratuan ikusten ditzuzuenak katedrala, San Lorenzo eliza, Kale nagusixa, udaletxeko plaza, Sanfermiñetan zezenak entzierruan egitten daben ibilbidia, Gaztelu plaza eta hiriburuko beste toki batzuk ikusten ederto pasau eben eguna.

Larrosa koloreko lazoa osatuko da gaur

Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egurenaren harira, horren inguruko ekitaldixa antolatu dabe gaurko Amaña es la Caña eta Minbizixaren Kontrako alkartiak: alkartasuna adierazteko, gaixotasun horrendako erabiltzen dan larrosa koloreko lazoaren ikurra osatuko dabe Untzagan, arratsaldeko 19:00etan. Antolatzailliak jende guztia parte hartzera animau nahi dabe.



autuan

40 URTE BETETZEN DITTUENEN BAZKARIXA

1978xan jaixotakuak azaruaren 17xan egingo dabe bazkarixa: Untzagan alkartuko dira, 12:00xetan, taldiaren argazkixa egin eta zapixak banatzeko. Jarraixan, luntxa egingo dabe eta, Unzaga Plaza hotelera bazkaltzera juan baiño lehen txikiteuan ibilliko dira. Bazkalostia girotzen DJ batek jardungo dau eta, arratsaldeko txikiteuan, barriz, txaranga eta guzti ibilliko dira. Afarirako luntxarekin agurtuko dabe jaixa. Juan nahi dabenak 100 euro sartu biharko dittu Banco Sabadellen, ES85 0081 4362 63 0001222723 kontuan (epia urriaren 26xan amaittuko da).


1937-XAN JAIXOTAKUEN BAZKARIXA

Azaruaren 23an alkartuko dira 1937xan jaixotakuak, aurten 81 urte bete dittuela ospatzeko. Egunerako plana aurrerago zihetzuko dabe, baiña juateko asmua dakanak izena emoten juatia eskertuko leukie antolatzailliak. Horretarako 55 euro sartu biharko dittu Kutxabanken, ES232095510900 9115389087 kontuan, izen-abizenak argi azalduta.

4 SAIO

AZAROAK 17
ZAPATUA
16:30 & 19:00

AZAROAK 18
DOMEKA
16:00 & 18:30



BAZKIDEENTZAKO
aurre-salmenta (7,50 €)

Urriaren 22tik azaroaren 3ra
...eta kitto!n salgai
(bazkide bakoitzak 3 sarrera gehienez)
10:00-14:00 eta 16:00-19:30

GAINONTZEKOAK (8,00 €)

Azaroaren 4tik aurrera
EL TIO PALANCAS (J. Gisasola)
DENETIK (Urkizu)
GOZOKI (Bidebarrieta
eta Sostoatarren)



IDURRE IRIONDO

Gaur zabaldu dabe Bizilagunak bazkarixetarako izen-emotia

Hamenguak eta kanpotik etorritakuek mahai baten bueltan alkartzeko asmuarekin azaruak 11n egingo diran Bizilagunak ekimeneko bazkarietarako izen-emotia gaur zabaldu dabe.



Interesa dakenak azaruaren 5era arte eukiko dabe izena emoteko aukeria. Aurreko urtietan bezela, bazkariak ekimenian parte hartzeko izena emoten dabenen etxietan izango dira. Informazio gehixagorako ongiatorri@etakitto.eus / inmigrazioa@eibar.eus helbidera idatzi edo 943-200918 / 943-708440 telefonuetara deitu leike.

Amiantuaren inguruko hitzaldixa gaur arratsaldian



Gaur arratsalderako "Amiantoa. Osasunean eta ingurumenean duen inpaktua" izenburuko hitzaldixa antolatu dabe Euskadiko eta Eibarko Ahal Duguren Osasun arlokuak. Gaixaren inguruan berba egittera etorriko diran hizlarixak Maria Valiente (Ahal Duguren Gipuzkoako koordinatzaillia) eta Jesus Uzkudun (sindikalista eta AS-VIAME-ko kidia) dira. Saiua 19:00etan hasiko da, Ahal Duguren egoitzan (Arragueta, 18).

"EH Bildutakoak" kanpaina hasiko dabe datorren astian

Eguazten goizian emondako prentsaurrekuan, datorren astian hasi eta Gabonak arte martxan egongo dan "EH Bildutakoak" kanpainaren barri emon eben Eibarko EH Bilduko ordezkariak. Asmua "EH Bilduk urte honetan aurrera eruan dituen ekimen eta proiektuak herritarren artian ezagutzera emotia" dala azaldu eben, "sarrittan gatxa egitten jakulako Udal barruan aurrera eruandakuen barri herritarreri emotia. Eibartarren perzepziñua Udalak burutu dittuala da eta, hori gezurra izan barik be, ekimenak zeiniek bultzatu dittuan jakiñarazia inportantia begittantzen jaku, guk bultzatu ezian ez ziralako indarrian egongo".

EH Bilduren biharrari esker aurrera etara diranen zerrendan 73 proiektu eta ekimen dagoz, baiña horretatik 9 nabarmendu nahi izan dittue: gaztien emantzipaziñua errazteko dirulaguntza; Eibar Ibilixan: ibilbide osasuntsuen sare; AKEBAL: Eibarko Euskararen Plan Estrategikua; Coliseoaren Laguna txartela; Eibarko alkartiendako Coliseoaren alokairua 3.000 eurotik 300 eurotara jaistia; Txonta Kulturala ekimena; auzokako aurrekontu partehartzailliak; Jazinto Olabe Ludoteka; eta etxez-etxeke laguntza zerbitzuko bihargiñen lan baldintzak hobetzia. Ekimenak ezagutzera emateko kartelak ipiñiko dittue eta, horrekin batera, sare sozialetarako bideua eta GIF bat preparau dittue. Eta urtarrillian etxe guztietara



banatuko dan Bolo-Bolo aldirkarixan be emongo dabe kanpainaren barri. Uztaillian Bista Eder kaleko 2. zenbakixan inauguratua eben Bilgunean izan zan prentsaurrekua eta, azalduakuen arabera, aurrerantzian zabalik egongo da lokala. Oindiok ez dabe ziheztu datozen hillebetiotarako programaziñua, baiña pil-pilian dagaizen gaixen inguruko hitzaldi eta dokumentalak eskintzeko asmua dake. Eta, horrekin batera, herriko alkarte eta eragillieri lokala erabiltzeko aukeria emongo detse. Udaleko lanaren zein herrixari lotutako gaixen inguruko jarraipena egitteko astero billerak egingo dittue, martitzenetan 17:30xetan.

Jairo Berbelen "Raid Pandemonium" dokumentalaren estrenua bixar

Bixar estrenauko dabe "Raid Pandemonium", Marokon egindako automobil lasterke-**ta solidarioa** erakusten daben dokumentala, 13:00ian Coliseo antzokixan. Estreñeko ikusi ahal izango dan dokumentalarekin batera "Ibai grande cuore" izenburuko ikus-entzunezko laburra proiektatuko dabe. Bi lanak Jairo Berbel elgoibartarrak egindakuak dira eta bixak dake izaera solidarioa, bigarren lan horrek gaixotasun arraro bat dakan Ibai ume ei-

bartarraren amets eta ilusiñuak islatzen dittu eta. Sarrerak 2 euro balixo dau eta batzen daben dirua gaixorik daguazen umien terapiak eragitten daben gastueri aurre egitten laguntzeko erabiliko dabe Eibarren gaixotasun arraruak dittuen umien famelixakuak sortutako AFESD alkartekuak. Sarrerak bixar, proiektziñuak hasi aurretik erosi leikez eta gaur be egongo dira salgai Coliseoko txarteldegixan, 17:00etatik 19:30xetara.



...eta kitto!-ri buruzko inkestak egitten hasiko dira astelehenian



Esku artian dakazuen aldizkarixa hobetzeko asmuarekin, eibartarren eritzixak jasotzeko inkestak egingo dittue Aztiker enpresako profesionalak, datorren astelehentik aurrera. Ikerketaren datuak balekuak izateko, danera 600 inkesta egingo dittue, gehixenak telefono bittartez, baiña inkestetako batzuk zuzenian etxietara juanda beteko dittue inkestatzailiak. Etxietara, atejoka doiazen inkestatzailiak ...eta kitto! Euskara Elkartea-

ren eta Aztiker enpresaren identifikaziñua eruango dabe. Galdetegixari esker jasoko dogun informaziñuak garrantzi haundixa daka guretako eta jasotako erantzun horrek aldizkarixa hobetzen lagunduko deskue. Horregaittik, datozen egunotan telefonoz zein zuzenian inkesta egitteko eskatzen badetsue, galdereri erantzutia benetan eskertuko genduke. Miñutu batzutan erantzuteko galdera errezak izango dira, batzuk erantzun zihetza eskatzen

dabenak eta beste batzuk, barriz, erantzun zabalagua emoteko aukeria eskintzen dabenak. Jasotako erantzun guztiak ondo aztertuko dittue eta, ondoren, datu guztiak prozesau egingo dira, ondorixuak etara ahal izateko. Emaizak Gabonetarako eukitzia espero dabe, baiña edozelan be, horrek jaso bezin laster, zeuen artian ezagutzero emongo dittugu. Aldez aurretik eskerrak emoten de-tsuegu aldizkarixa hobetzen lagunduko dozuen guztieri.

centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
 Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1) Kardiologia	10) Barne Medikuntza
2) Zirugia	11) Radiologia
3) Dermatologia	12) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	13) Traumatologia
5) Anali Klinikoak	14) Koloproktologia
6) Ortodontzia	15) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	16) Foto-depilazio Unitatea
8) Pediatria	17) Ginekologia BERRIA
9) Psikiatria	18) Psikologia BERRIA

Isasi kalea, 7

jatetxea

Tel. 943 20 11 16 Mob. 699 617 461

Martitzen goizean aurkeztu zuten udaletxean Egoaiziak eta Aldatzen boluntario taldeak antolatuta bihar Untzagan egingo den "V. Bazkari solidarioa - Jana ez da txantxa". Ekitaldian azaldutakoaren arabera, "ekimenarekin, herritarrak Peruko nekazariaren errealitate gerturatu nahi ditugu, euren komunitateen garapenaren alde egiten duten lana eta ahalegina errekonozitzeko eta hemengoak horren inguruan sentsibilizatzeko asmoz".

Bazkarirako Bidezko Merkataritzako produktuak eta hemen ekoiztutakoak eskainiko dituzte eta menua prestatzeko herriko hainbat elkarte gastronomikoren laguntza izango dute. Tiketak Kultu, Koskor, Kontent eta Guridi tabernetan eta Villalba supermerkatuan eros daitezke, 12 eurotan (ume, jubilatuei eta langabetuei 9 eurotan) eta bihar ere salgai egongo dira, Untzagan, toki guztiak bete arte. Horrez gain, norbaitek ekimenari lagundu nahi badiu, baina bazkarira joaterik ez badiu, horretarako aukera dauka "0 platera" erosita. Jasotako diru guztia APPROCAP (Asociación de Pequeños/as Productores/as de Cacao de Piura) izeneko elkarte indartzera bideratuko dela azaldu zuten



Egoaizia eta Aldatzen boluntario taldeko ordezkariak Idoia Sarasketa zinegotziarekin. Silbia

Peruko nekazariaren aldeko bazkaria bihar Untzagan

arduradunek. Egoaiziako Alaia Berriozabalen berbetan, "badira 7 urte erakunde horrekin lanean hasi ginela, garapenerako proiektu ezberdinen bitartez laguntzen".

Sukaldaritza tailerra umeentzat

Bestalde, Untzaga plazan ipiniko den karpa barruan egingo den bazkariaren inguruan hainbat jardura egingo dira: umeentzat sukaldaritza tailerra, ipuin kontalaria, Bidezko Merkataritzako produktuen salmentarako postua, sarien zozketa, bertsolariak, Mugi Panderoa taldearen eta Nathali Chuchón abeslariaren musika, informazioa emateko ma-

haia eta Peruko nekazariaren helaraziko zaizkien mezuak idazteko murala, besteak beste. Aurkezpenean aurreratu zuten, "aurten ere sukaldari ospetsu bat izango dugu gure artean. Gurutz Goikoetxeak, arroza prestatzen laguntzeaz gain, Mireia Alonso eibartarrekin batera umeentzat tailerra emango du, 12:00etatik aurrera". Aurkezpenean egon zen Mireia Alonso gastronomoaren berbetan, "Gurutzek nirekin batera ikasi zuen eta nola sukaldatzen duen ikusteak merezi du, ikuskizun hutsa da eta. Disko-jogailuarekin ibiltzen da batetik bestera. Debarra da, baina Huescan dauka gozotegia. Umeekin tailerra amaitzean Eibarko koloreekin tarta egiteko asmoa duela esan dit". Horrez gain, Radio Vitoria-Radio Euskadin "La ruta Slow" irratsaioa zuzentzen duen Aitor Buendia kazetariak eta Mugi Panderoa taldeko Miren Gisolak mikrofonotik eguna girotzen jardungo dute.

Idoia Sarasketa Gizartekintza arloko zinegotziaren berbetan, "badira urte batzuk Udala ekimena babesten hasi zela

eta bereziki garrantzitsua begitantzen zaigu jende gaztea sentsibilizatzeko antolatzaileek egiten duten lana". Udalaren babesarekin batera, ekimenak beste hainbat erakunde eta talderen laguntza dauka eta horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileek, "ematen diguten laguntzari esker delako posible bazkaria eta beste guztia antolatzea. Eskerrik asko, beraz, laguntzaile guztiei". Laguntzaileen zerrenda honako hauek osatzen dute: Ausolan, Aza ta Porrúa, Bodegas Harresi, Insalus, Uroldeba Banaketak S.L., SD Eibar Fundazioa, Guridi, Kontent, Koskor, Kultu, Villalba, Panaderia Isasi, Gizalde, Eibarko Klub Deportiboa, Mireia Alonso, Nathali Chuchon, Mugi Panderoa, bertsolariak, Ongi Etorri Berbetanera, Egoaizia eta Aldatzen taldeko boluntarioak, Amaña es la Caña, Alas para Aroa Elkarte, Club Lambretta eta Asola Berri, Loiolae-txe, Eibarko Betikuak, Gure Basterra, Jaiki, Ondo nai, Zorionak, Unzaga, Denon Saha-tsa, Sasipe eta Karamarroak elkarte gastronomikoak.

V. Bazkari Solidarioa "JANA EZ DA TXANTXA"

EGITARAUA

11:00/16:00: Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta.

12:00: Umeendako sukaldaritza eta txapa tailerrak.

12:45: Ipuin kontalaria (Badut).

14:00: Bazkari solidarioa.

Ondoren: Otar baten zozketa. Bertsolariak.

Zuzeneko musika: Nathali Chuchón eta Mugi Panderoa.



JULEN ZABALETA
(Gure Balioak saria)

“Marrazten jaio nintzen”

6.000 lamina baino gehiago marraztu ditu Julen Zabaletak 90 urtetan zehar, eta horietako asko oparitu egin baditu ere, gehienak ondo ordenatuta ditu etxeke gela batean. Hori gutxi balitz, memoria fina dauka eta zehatz mehatz gogoratzen ditu egindako marrazkiak. Eibarko, Euskal Herriko eta beste hainbat tokitako kale, eraikin eta paisaiak marraztu eta gero, Debegesak 2018ko Gure Balioak saria eman dio, “bere legatu garrantzitsuarengatik”. Apaltasunez jaso du saria Zabaletak, bere afizioz eta pasioaz berba egiten duen moduan. Marrazkigintzarekiko maitasunak ez du etenik eta 97 urterekin egunero marrazten jarraitzen du.

- Pozik Gure Balioak saria jasotzeagatik?

Ondo eta gustora jasotzen da horrelako sari bat. Beti gustatu izan zait marraztea eta beti maite izan duzun horregatik saria ematen badizute, sentsazioa oso polita da. Haserreak jasotzea baino hobea bai behintzat (barreak).

- Urte askotan zehar egindako lan onaren seinale da?

Niretzat polita da ikustea nitaz akordatu direla. Horrelako esker ona jasotzea, Debabarreneko biztanleek proposatuta, polita da.

- Horrelako sariren bat jasotzea espero zenuen?

Ez, ezta gutxiago ere.

- Nola jakin zenuen?

Nire seme Juleni esan zioten lehenik eta berak eman zidan abisua. Niretzat berri bat zuela esan zidanean beste gauza

bati buruz izango zela pentsatzen nuen. Gero, Debegesakoekin berba egin nuen, bozketaren berri eman zidaten eta lortutakoak jabetu nintzen. Elgoibarren jaiotakoa naiz eta Gure Balioak saria jaso dugun beheratzi irabazletatik bost elgoibartarrak gara. Elgoibarko Udalak pisu handia duela dio nire semeak (barreak).

- Beno, kasu honetan Elgoibar eta Eibar artean erdibana banatuko dugu saria, ez? Urte asko daramatzazulako Eibarren bizi izaten.

**“Marrazkigintza
benetako
pasioa izan
da niretzat”**

Eibartar batek bakarrik lortu du saria orain arte. Lehenengo edizioan izan zen, 2010ean, Tere Gantxegik irabazi zuenean.

- Zer dauka Elgoibarrek horrenbeste jonio edo pertsonaia nabari edukitzeko?

Ez dakit, zerbait edukiko du. Gauzak ondo egiten jakitea izango da kontua. Horrelako gauzetan nahiko argiak gara elgoibartarrak.

- Mallabiko frontoian emango dizute saria. Saria jasotzean zer esango duzun pentsatu duzu?

Zer esango dut ba nik? Semeak esaten dit ez dudala ezer esan behar, eskerrak eman eta kitto. Nire bizimodua nola eraman dudán kontaktuko dut, egindako gauzen berri eman eta, batez ere, eskerrak emango dizkiet urte hauetan nire alboan egon direnei. Marrazten zelan hasi nintzen, gero Gerra Zibila tokatu zitzaidala eta zelan pasatu nuen, gerraostean egoera zelan zuzendu zen, ondoren afizioa eta ofizioa batu eta tailerrean lanean zelan hasi nintzen... Ofizioa eta afizioa batera erabili ditut eta oraindik jarraitu egiten dut. Egunero zerbait egin behar izaten dut. Beti edukitzen dut erronkaren bat eta horrek bizitza ematen dit.

- Zergatik uste duzu eman dizutela sari hau?

Ez da bakarrik 6.000 lamina baino gehiago marraztu ditudalako, marrazki hauekin gauza askotan lagundu dudalako baizik. Adibidez, elkarte filateliko askorekin elkarlanean ibili naiz, baita elkarte gastronomikoekin ere, Elgoibarko jaiotzarekin... liburuak, aldizkarietarako kolaborazioak, kartelak, marrazkiak, diplomak, txirringularitza lasterketen ibilbideak eta beste mila gauza egin ditut eta laguntza eskatu didaten askok, eskerrak emateko, sariak eman dizkidate urte hauetan zehar.

- Enkargu bitartez egindako lanak izan dira?

Zerbait egiteko eskatzen zidaten eta nik egin, beste barik. Denetarik egin dut.

- Arkatza hartu zenuen lehen aldia gogoratzen duzu?

Marrazten jaiotzen nintzen (barreak). Sei urterekin San Lorentzoko eskolara joaten nintzen Elgoibarren. Gure ama baserrikoa zen eta nahiz eta gu kalean bizi ginen, amama gaixotzean baserrira joan ginen urte bitan edo, amama hil arte. Aitak lapitza erosi zidun anai gazteari eta bioi, bastoi itxurakoa. Anaiak handik gutxira galdu zuen lapitza, baina nik berehala hasi nintzen marrazten. Atxurra marraztu nahi izan nuen lehenik eta auto bat irten zitzaidan (barreak). Ordu hartan lehengusuen etxera asko joaten ginen eta eurak jolasean zebiltzan egun bat dut gogoan. Bederatzi urte inguru nituen. Liburu bat ikusi nuen, entziklopedia bat, eta irudi batean Don Juan Prim zaldi gainean agertzen zen eta gustatu egin zitzaidan. Iru-di hori marrazten saiatu nintzen eta irten egin zitzaidan. Aitak marrazkia hartu eta denei erakusten zien. *"Begira nolako gauzak egiten dituen nire semeak"*.



Zabaleetak bere etxean hartu gintuen. E. Belar

"Idazten eta berbetan abstraktua naiz, baina marrazten guztiz kontrakoa, oso zehatza naiz"



- Berezko talentua zeneukan?

Demaseko afizioa neukan eta marrazteko konstantzia asko. Hobetzen saiatu naiz beti eta marrazkiak nahi nituen bezala gelditu arte ez naiz gelditu.

- Nola egiten zenuen teknika hobetzeko?

Dibujo eskolara joan nintzen, baina dena dena neure kabuz ikasi nuen, marrazkiak behin eta berriz egitearen poderioz.

- Zure marrazkiak oso errealistak dira. Beti izan da horrela?

Idazten eta berbetan abstraktua naiz, baina marrazten ez, marrazten zehatza naiz.

- Nolakoak izan ziren zure lehenengo marrazkiak?

Adibidez, koadrilan geunden eta foballean taldeak marraztu eta "hau hi haiz" esaten nion lagunen bati. Karikaturak egiten nituen. Gauzak asko aldatu dira ordutik. Lehen gazteak pilotan, foballean edo jolasean ibiltzen ginen, eta gaur egun Elgoibarko gazte askok euren jatorria eta gauzen zergatia zein den jakin nahi dute. Hemen ez dut gauza bera ikusten.

- Zenbat denbora behar izaten duzu marrazki bat egiteko?

Ez dut denbora kalkulatzeko, baina ez dut asko tardatzen. Marrazki batzuk egiteko egun bat irauten dut, baina beste batzuk goiz batean marrazten ditut.

- Zure marrazkiak Eibarko historiaren lekuko izan dira. Zer irudikatu duzu zure marrazkietan?

Eibarri buruzko nire marrazkien %90tik gora Gerra Zibilaren aurrekoak dira. 'Eibar, tintaz eta lumaz' liburuan daude jasota Eibarri buruz egindako marrazkiak. Eraikinak, kaleak, pertsonaia ezagunak... ehun bat marrazki daude.

- Nola pasatu zenuen Gerra Zibila?

Elgoibarren egon nintzen gerrak iraun zuen denboran eta orduan hasi nintzen lanean. Ez genuen kobratzen, dirurik ez zegoelako. Elgoibarren Gerra Zibila ez zen Eibarren bezain sentitu. Elgoibar Francoren tropen mende zegoen, Karakaten zituzten kainoiekin Kalamuan zegoen frentea bonbardatzeko. Gero, frankistak Eibarren sartu zirenean, Eibarrera etorri nintzen eta herria sutan ikusi nuen.

- Zein prozedura jarraitzen zenuen marrazkiak egiteko?

Argazkiak hartu eta marrazkietan irudikatzen nituen. Normalean Indalecio Ojangueren 'Kajoitxo'-ren argazkiak erabiltzen nituen, lagun handia, baina baita Feliciano Castrillorenak ere, besteak beste.

- Antzinako Eibar marraztea gaur egun-
 goa marraztea baino gehiago gustatzen
 zaizu?

Duda barik! Gaur egun go Eibar marraz-
 teak ez du merezi.

- Marraztu nahi izan eta marraztu ezin
 izan duzun tokirik badago?

Ia horrelako zerbait gertatu zitzaidan,
 baina libratu nintzen. Deban bazegoen his-
 toria bitxia zuen etxe bat eta behin, arra-
 tsalde batean, hara joan nintzen argazkia
 ateratzera gero etxea marrazteko. Sasoiz
 joan nintzen, hurrengo astean etxea bota
 zutelako.



Hilaren 25ean jasoko du saria Mallabian

Julen Zabaletak hilaren 25an,
 eguena, jasoko du saria Mallabiko
 frontoian 19:00etan. Sari banaketa
 ekitaldia irekia izango da eta
 ekitaldiari hasiera emateko Jose
 Antonio Azpiazu historialari,
 antropologo eta idazle legazpiarrak
 hitzaldia eskainiko du ondarearen
 balioari buruz. Musikak ere bere
 tarte izango du ekitaldian, Mallabiko
 'Lagun Artean' abesbatzaren eskutik.


- Marrazteko orduan beti erabili izan du-
 zu teknika bera?

Bai, beti. Lehenengo lapitza erabiltzen
 nuen eta gero rotringa (idazluma). Marraz-
 ki linealak egin ditut batez ere, baina baita
 puntuz-puntuko marrazkiak ere, marraz-
 kiak horrela eskatzen bazuen. Añamen-
 direntzat egindako 'Hombres ilustres' bil-
 dumako marrazkiak, adibidez, puntuz-pun-
 tu egin nituen.

- Zure marrazkietan kolorea erabili izan
 duzu?

Ez, daltonikoa naiz, horregatik erabiltzen
 dut beltza bakarrik (barreak). Koloreak era-
 biltzen hasi nintzenean konturatu nintzen
 daltonikoa nintzela.

- Inoiz ez zara marrazteaz aspertu?



97 urte ditut eta atzo marrazten ibili nin-
 tzen. Orain zain daukat beste marrazki bat
 eta arratsaldean marraztuko dudala pen-
 tsatzen dut. Goizetan egunkaria lasai ira-
 kurri eta buelta bat ematea gustatzen zait,
 baina iluntzean pulstu eta bista hobea edu-
 kitzen dut eta orduan gustatzen zait mar-
 rraztea. Gogoa edukitzea beharrezkoa da,
 ezin da gogoz kontra marraztu, ez zaizula-
 ko ezer irtenko. Berdin da bizitzako kontu
 guztietan.

- Gustokoa izan duzuna egin izan duzu?

Gustokoa baino zerbait gehiago izan da
 marrazkigintza niretzat, benetako pasioa.

2.000 euroko Gabonetako OTARRA



Gaur eta bihar kalean erosteko aukera

Gaur (19:00-21:00) Bihar (13:00-14:00)

SALMENTA LEKUAK:

El Corte Ingles, Isasi okindegia,
 Mujika eta Otegui harategiak,
 Echetto eta Arriola prentsa,
 Maria Ospital (Calbeton), Bolintxo,
 AEK eta Udal Euskaltegia, Kuntu,
 Izadi loradenda eta ...eta kitto!



Funeraria Ehortzetxe
Mugica

EIBAR	ELGOIBAR
<p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p> <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>	

Ideia onenak lagun arteko bazkarietan iruten dira askotan, elkarte gastronomikoetako sukaldeen inguruan. Horrela piztu zen asteburu honetan Portaleak jasoko duen 'Gizakiaren enigmak' kongresuaren lehen txinparta ere. **Leyre Villar eta Jose Luque** aspaldiko lagun onak dira eta beti izan dute historia, misterio eta enigmen inguruko zaletasuna, baina hemendik kanpo joan behar izaten ziren gai hauen inguruko hitzaldi eta kongresuak ikusteko. Mahoma mendira ez badoa, Eibarren gizakiaren enigmen inguruko kongresua antolatzeko erronka hartu dute biek.

Gizakiaren enigmak mintzagai Portalean

Elkarre gastronomikoko mahaitik Portaleko areto nagusira pasatzeko lan handia egin dute Leyre eta Josek, baina urtebeteko lanak asteburu honetan izango du saria. Hari batek tiratuz asteburu osoko programa osatu dute, gizakiaren hainbat enigmei erantzuna bilatzen saiatu, eta Eibar eta inguruetako historia eta misterioen berri emateko. *"Leyrek Javier Arries ezagutzen zuen eta hizlariaren izenak eta gai posibleak proposatu zizkigun"*, esan digu Josek. Hurrengo pausoa Toti Martinez de Lezea idazlearekin berba egitea izan zen, eta Paz Velasco abokatu eta kriminologoa etortzea lotu zuten gero. Donostiko Liburu Etxean 'Criminalmente' liburua aurkeztu zuen Velascok eta han egin zion proposamena Josek. *"Ideia zoragarria iruditu zitzaion eta gurekin izango dugu domekan"*.

Eta horrela, poliki-poliki, sei hizlari izango dituen 'Eibar hiri-



Leyre Villar eta Jose Luquek (argazkian) antolatu dute kongresua.

ko kongresu kulturala. Gizakiaren enigmak' batzarra antolatu dute asteburu honetarako. **Bihar, zapatua**, 10:00etan kongresuaren aurkezpena egingo da eta Toti Martinez de Lezea, Cristina Lopez eta Fermin Mayorga izango dira goizeko hizlariak. Gero, bazkalostean, Nerea Alustiza historiala-

ri eibartarrak bisita gidatua eskainiko du eta 19:00etan 'Tiempo de hadas' irratsaioaren zuzeneko grabaketa egingo da Portalean. **Domekan**, bestetik, goizean gauzatuko da programa, 10:30ean hasita, eta bertan Javier Arries, Manuel Berrocal eta Paz Velascok hitzaldiak eskainiko dituzte.

Sendalari eta sorginei buruz egingo du berba Carmen Lopez medikuak.



Hitzaldiak, bisita gidatua eta irratsaioa

Toti Martinez de Lezea izango da kongresuko lehen hizlaria. Gasteizko idazleak ez du aurkezpen handirik behar. Euskal mitologiak toki garrantzitsua dauka bere liburuetan eta hortaz jardungo du Portalean. Gero, **Cristina Lopezek** hartuko du Lezearen txanda. 'Emakume jakintsuak, sendalariak eta sorginak' izango da bere hitzal-

diaren izenburua. Madrilgo ospitale bateko sendagilea da Lopez eta sorginkeriaz egingo du berba. *"Sorginei buruz berba egiten dugunean sudurrean garaxoa duen emakumea etortzen zaigu burura, baina emakume jakintsuak izan ohi ziren sorgintzat hartzen zituzten horiek. Sendabelarren inguruko ezaguerak izaten zituzten eta garai hartan, elizak eta gizonezkoek menderatutako gizartean, horrelako ezaguerak edukitzea heresia zen"*.

Fermin Mayorga izango da zapatuko azken hizlaria. Eibar-ko historiari helduko dio eta herrian egon diren heretikoei buruz egingo du berba. *"Inkiszioaren inguruan aditua da eta Eibarko prozesu inkisitorialari buruzko ikerketa sakona egin du"*. Inkiszioak prozesatu zituen eibartarren izen eta abizenak emango ditu, eta Zugarramurdi eta Eibarren arteko erlazioaz mintzatuko da. *"Sorgin bat geneukan hemen"*, dio Josek, *"baina ezin dut gehiago kontatu"*. Gainera, galdera bitxia bota dio Mayorgak Jo-

Sei hizlari hartuko dute parte eta denetariko gaiak landuko dituzte

Irabaziak 'Sentimientos de Cristal' erakundeari emango dizkiote antolatzaileek

seri. "Eibarko 'Sorginaren etxea' ezagutzen dudan galde-tu dit, baina ez dakit zein den".

Zapatuko hitzaldiak entzun eta bazkaldu ostean, **Nerea Alustiza** historialari eibartarrak bisita gidatua egingo du San Andres elizan. "Elizaren historia aztertuko du eta munduan dauden bizar bariko hiru Kristoetako bat Eibarren dagoela kontatuko digu, besteak beste". Bisita 17:00etan hasiko da San Andres elizako atean.

'Tiempo de hadas' irratsaioa zuzentzen duen **Ada Garcia eta Miguel de Miguel** misterioetan aditua izango dira kongresuaren aurkezleak. "De Miguelek ibilbide luzea dauka gai hauen inguruan eta Garciaren irratsaioa oso gustoko dut, atsegina delako eta ez dituelako ohiko misteriozko gaiak jorratzen", dio Josek. Bihar, 19.00etan, irratsaioaren grabaketa egingo da Portalean eta kongresuan parte hartuko duten hizlariak Garciarekin jardungo dute bertan. 'Zuentzat misterioa zer da?' galderari erantzun beharko diote hizlariak.

Egiptotik Euskal Herriko hilketetara

Javier Arriesek antzinako Egiptoko magiari buruz berba

egiten zabalduko du domekako saioa. "Fisikan lizentziatua da eta oso adimentsua". Hainbat liburu kaleratu ditu eta antzinako Egiptoko magiari buruz egiten du berba azken liburuan. "Kongresuan denetariko gaiak jorratzea da gure asmoa eta Egiptori buruzko gaiak beti dute publikoa, beti da interresgarria".

Manuel Berrocal psikiatra izango da domekako bigarren hizlaria. "Orain dela gutxi polemika sortu zuen gai bat ekarriko digu. Izan ere, esaten zen umeei ez zitzaieela maitagarri, printze eta printzesa, eta horrelakoei buruzko ipuinak kontatu behar", dio Josek. "Ba ez, ipuinak lehenagotik datoz eta horien atzean zerbait dago". Hori azaltzeko Hansel eta Gretelen ipuina jartzten du adibide moduan. "Euren aitak basoan bakarrik uzten ditu eta, horren bitartez, ipuin hori irakurtzen duen umeari esaten zaio egunen batean bere gurasoak ez direla egongo eta bere kabuz bizitza aurrera atera beharko duela". Umeen ipuinen muinera joko du Berrocalek. "Ipuinen zergatia kontatuko du".

Paz Velascok emango dio amaiera kongresuari. Euskal Herrian egon diren psikopata eta hiltzaileen istorioak ekarriko ditu. "Zakuaren gizona existitu zen. Diaz de Garaio zuen abizena eta Gasteizkoa zen", Josek dioenez. "Eibarren ere izan ditugu hiltzaileak eta sakamantekak (errai-ateratzaileak)". Umeen gantzak tuberkulosia sendatzen zuela sinestuta umeak hiltzen zituztenak zi-



Euskal mitologiari buruz arituko da Toti Martinez de Lezea idazlea.



Juan Diaz de Garaio, Sacamantecas bezala ezaguna.

ren errai-ateratzaileak. "Hitzaldietara joaten dena harrituta iritengo da Portaletik, horrelako istorioak hain hurbil gertatu izanagatik".

Kongresua herrian errotu

Eibarri ekarpen kulturala eskaintzea da antolatzaileen asmoa. "Gure herrian ez dira egin mota honetako kongresu kulturalak eta probatzea nahi dugu", Joseren berbetan. Udalarekin berba egin eta ideia

gustatu zitzaien. "Portaleko areto nagusia eta ikus-entzuzko materiala erabiltzeko aukera eman digute, baina momentuz ez dugu diru-laguntzarik jaso, horretarako herrian errotutako ekitaldia izan behar delako". Ekimen hau herrian errotzea da antolatzaileen asmoa eta, horretarako, asteburu honetan jendea kongresura joatea garrantzitsua da. "Sarrerren salmenta nahiko makal doa momentuz, baina askotan azken momentura arte itxaroten du jendeak eta egunean bertan erosi ahal izango dira sarrerak".

Sarrerren prezioa 25 eurokoa da eta Adhara zentroan (Elgeta kale, 2 ac) eta Dandara dendan (Bidebarrieta, 3) erosi ahal dira. Sarrerren salmentarekin lortutako irabaziak 'Sentimientos de cristal' elkarteari emango dizkiote antolatzaileek. Kristalezko hezurren gaixotasuna duten pertsonei laguntzeko sortutako elkarte da eta euren jardunari buruz egingo dute berba 'Gizakiaren enigmak' kongresuaren aurkezpenean.



ANTXONI MURUA ABAUNZA

(1926-X-13 / 2018-X-10)

Nire kantak eta pasadizoak pozik gogora itzazue.
Nire leloa gorde betiko eta zuena egin:
"Beti ondo, beti pozik"



Lanbideren zentro kolaboratzaile den Daiteke Gizarte Aholkularitzaren eskutik, Debegesako orientazio zerbitzuaren bidez enplegu bila ari direnek edo lan egoera hobetu eta euren prestakuntzara egokitutako lanpostua lortu nahi duten pertsonen doako laguntza jasoko dute. Daiteke Aholkularitzako **Araceli Guerrero** ermuarra eta **Maria Alonso** arrasatearra Debegesako lokaletan egoten dira, egunero, gerturaz direnei laguntza emateko: curriculumak egiten lagundu, lan-bilaketaren planifikazioan aholkularitza eskaini, lan-elkarrizketak gainditzeko aholkuak eman... Lan-bilaketarekin zerikusia daukaten alor desberdinak lantzen dituzte. Zerbitzua hobeto ezagutzeko Araceli Guerreroarekin elkartu gara.

- Zer eskaintzen diezue lan bila dabiltzanei?

Bi zerbitzu ditugu hemen, enplegu-zentroa eta orientazio-zerbitzua. Enplegu-zentroan interneterako konexioa duten ordenagailuak erabiltzeko eta curriculumak inprimatzeko aukera dute. Une oro, Maria nire lankidearen laguntza dute ordenagailuak erabiltzeko, bai lana bilatzeko webguneetan izena emateko edota LinkedIn sare sozialean izena eman eta perfila sortzeko. Tailer edo ikastaro txikiak antolatzen ditugu. Eta lan bila ari direnei ahal dugun guztian laguntzen diegu. Edozein etor daiteke, baldintza bakarra Lanbiden erregistratuta egotea da, eta horretarako bertara joan behar dute. Beste gestio guztiak guk hemendik egin ditzakegu: Lanbideko eskaera eguneratu, datuak sartu...

- Orientazioari dagokionez zer eskaintzen diezue?

Nirekin ibilbide bat egiten dute. Lehenengo hitzordu bat ematen diegu. Elkarrizketa txiki bat izaten dugu pertsona hobeto ezagutzeko eta zertan lagundu ahal diogun jakiteko. Bigarren hitzorduan, normalean, curriculumak prestatzen da. Askotan gure curriculumak ondo dagoela pentsatzen dugu, baina hau ez da horrela izaten.

- Nolakoak dira gaur egungo curriculumak?

Urtetik urtera aldatzen doa curriculumak egiteko modua, eta desberdintasuna asko baloratzen da. Pentsatu behar dugu langile bat kontratatu behar duen pertsona ba-



Araceli Guerrero Daiteke-ko orientatzailea. Eurekin harremanetan jartzeko: 943 82 01 80 edo maria.alonso@daiteke.com / araceli.guerrero@daiteke.com

ARACELI GUERRERO (Daiteke Aholkularitza):

“Lan bila ari direnei ahal dugun guztian laguntzen diegu”

tek 200 curriculum dituela esku artean. Normalean 20 segundu dedikatzen zaizkio bakoitzari. Horietako bat diseinuagatik desberdina baldin bada eta atentzioa deitzen badu, zalantza barik, denbora gehiago eskainiko dio. Gaur egun, ez dira zuri-bel-tzean egiten, koloretan baizik, ikonokoak asko erabiltzen dira eta argazkiak ezin dira bertan pegatu. Nik beti gomendatzen diet curriculumak euren gustokoak, originalak eta funtzionalak egiteko. Nola egituratzen den ere oso inportantea da: beti esan digute hasieran prestakuntza eta ondoren lan-experientzia joan behar dela, baina kasu batzuetan hobe da alderantziz jartzea. Curriculumak bakoitzaren potentziala azaldu behar du eta lagundu egin behar gaitu.

- Internetek aldaketa handiak ekarri ditu lana bilatzerako orduan?

E-maila edukitzea ezinbestekoa da. Lehen, kotxea hartu eta poligonoetara joaten ginen gure curriculumak banatzera. Gaur

egun dena internet bitartez egiten da: curriculumak e-mailez bidaltzen dira, enpresen webguneetan erregistratu behar zara... Jende askok lana bilatzeko mugikorrek erabiltzen ditu eta horretarako lagungarri diren aplikazioak instalatzen ditu: In-fojobs, LinkedIn, WorkToday...

- Zein izaten da hurrengo pausua?

Askotan, motibazio falta dela eta, jendea dei baten zain egoten da, baina ezinbestekoa da lan-bilaketa e-estruturaztea: modu profesional batean bilatu behar dugu lana, ordutegi bat eta leku bat finkatuz, seriotasun batekin, azken finean. Bestalde, autokandidaturak egiten laguntzen dugu. Horretarako bi metodo daude: alde batetik lan eskaintzetan apuntatu daitezke (curriculumak eskaintza konkretu bakoitzera egokituz), eta, bestetik, eskaintzak egon ez arren, interesatzen zaizkien enpresa horietan euren burua eskaini dezakete. Horretarako gidoi bat prestatuta eduki behar dugu eta garrantzitsua da enpresa horri buruzko informazioa edukitzea. Horretaz gain, lan-elkarrizketak prestatzen laguntzen diegu: nola joan behar duten jantzita, egingo dizkieten galderei nola erantzun, urduritasuna nola gestionatu...

“Diseinua eta desberdintasuna asko baloratzen da curriculumak aukeratzeko orduan”

Mikel Mazkieran SOS Arrazakeria erakundeko idazkari orokorra da eta atzerritartasun arautegiari buruzko hitzaldia eman zuen atzo Portalean. Atzerritarrek euren egoera erregularizatzeko eman beharreko pausoak argitu zituen, azken aldia baldintzak asko zorrotzu direlako. Atzerritarren egoera erregularizatzea zaildu bada, are gehiago gogortu da egoera irregularrean daudenen aurkako jarrera. Ez bakarrik politikarien berba iraingarri eta mehatzatzailleetan, baita kanporatzeko politikan ere.



Egoera irregularrean daudenen aurkako jarreraren gogortzea salatzen du.

MIKEL MAZKIERAN (SOS Arrazakeria):

“Migratzaileak pertsonak dira, ez objektuak”

- Zeintzuk dira euren egoera erregularizatu nahi duten atzerritarren kezka nagusiak?

Atzerritar kolektiboak, orokorrean, badaki zein gauza egin behar dituen bere egoera erregularizatzeko, baina legean hainbat aldaketa egon dira eta horren inguruan berba egitea garrantzitsua da. Nazionalitatea nola lortzen den jakiteak kezkatzen ditu, batez ere, azken boladan hainbat aldaketa egon direlako nazionalitatea lortzeko tramiteak egiteko orduan. Bestetik, Europar Batasuneko hiritartasuna lortzeko zein baldintza bete behar diren ere asko interesatzen zaie.



“Italiako lehen ministroaren deklarazioek ez dute laguntzen, baina Europar Batasunak ez du lortu migrazio politika egoki bat zehaztea ere”

- Legean hainbat aldaketa egon direla aipatu duzu. Zein aldaketa?

Urte asko hemen pasa ondoren lortzen dute nazionalitatea atzerritarrek orokorrean. Kode zibilak dio Latinoamerikatik datozenak urte bi egon behar dira hemen bizitzen nazionalitatea lortu aurretik, eta beste tokietatik datozenak hamar urte. Lehenik Espainiako konstituzioari eta gai soziokulturalei buruzko azterketa gainditu behar dute. Gainera, euren jatorriko herrialdeetan gazteleraz egiten ez bada, gaztelerazko azterketa ere egiten zaie. Gero, tramitazioa egiteko orduan aldaketak egon dira, orain ez delako Erregistro Zibileran joan behar, internet bitartez egin behar delako. Horretarako, ziurtagiri edo sinadura digitala atera behar da eta horrek prozedura zailtzen du eskakizuna egiten dutenentzat.

- Zergatik zailtzen da?

Eskakizuna egingo duen tramitzaile edo abokatu bat kontratatu beharko dutelako, edo ziurtagiri digitala duen baten batekin egin beharko dutelako. Bestela, euren kabuz atera beharko dute sinadura digitala eta zaila da.

- Bestelako baimenak lortzea ere konplikatu da, ezta?

Baietz esango nuke. Aldaketa normatiboak ez dira asko izan, baina baldintza gero eta zorrotzagoak ari dira jartzen. Ez da malgutasunik ikusten, dena exijitzen da. Dena eta gehiago. Ez dira erraztasunik jar-

tzen baimenak lortzeko edo berritzeko. Azken urteotan gertatu den gauza bat da.

- Europako hainbat herrialdeetan migratzaileen inguruan hartutako neurri gogorrek zerikusia daukate?

Europa mailan gertatzen ari denarekin konparaketa egiteko atzerritarren kanporatzeari begiratu beharko genioke, ez hainbeste baimenei. Hau da, estatuak nola tratatzen dituen egoera irregularrean dauden atzerritarrak. Zentzu horretan bai ikusten da kontrola oso zorrotza dela eta hegoaldeko mugan garbi ikusten da hori. Gero eta baliabide gehiago jartzen dira jendea kanporatzeko eta horretarako jarritako medioak gero eta sofistikatuagoak dira. Gaur egun zuzenean kanporatzen dira atzerritarrak, internamendu zentroetatik pasa gabe, ‘kanporaketa expressa’ dena. Horrelako sistemak zuzenagoak dira, baina berme gutxiago eskaintzen dituzte.

- Azken aldia politikarien ahota eta hedabideetan atzerritar eta migratzaileen aurka botatako mezuek nolako eragina izan dezakete gizartearen?

Ez dute bat ere laguntzen. Atzerritar eta migratzaileak gure bizilagunak dira. Italiako lehen ministroaren deklarazioek ez dute laguntzen, baina Europar Batasunak ez du lortu migrazio politika egoki bat zehaztea ere. Migratzaileak pertsonak dira, ez dira objektuak. Deklarazio hauek sortu duten dinamikekin pertsona batzuei buruz berbetan ari garela ahaztu dugu.

*iokin elortza*

Eskuak garbitzea

Joan den urriaren 15ean “Eskuen Garbitzearen Mundu Eguna” ospatu zen. Egun hori, Nazio Batuen Asanblada Orokorra bultzatuta, 2008. urtetik aurrera ospatzen da eta eskuak xaboiz garbitzeak duen garrantzia aldarrikatzen du.

Eskuak garbitzea denok egiten dugun ohiko ekintza bat bada ere, azterketa guztien arabera, egiten duguna baino gehiago egin beharko genuke, eta beti ere, xaboia erabiliz. Adibidez, ezinbestekoa da komunera joan ondoren edo elikagaiak manipulatuta aurretik eskuak beti xaboiz garbitzea.

Nahikoa litzake munduan ohitura hau hedatzea urtean miloika umeren heriotza sortzen duten neumonia eta beherako kasuen kopurua nabarmen jeisteko. Urteko, munduan soilik eskuak xa-

boiz garbituz ekidin daitezkeen 840.000 heriotza suertatzen direla estimatzen da, eta azterketen arabera, eskuak xaboiz garbitzeko inbertitzen diren 3 eurok, uraren horniduran inbertitutako ehunka edo eta immunizazioan inbertitutako milaka euroren eragin berbera dute.

Baina ez gara datu hain latzetara joan behar; hemen, gure artean, eskuen bitartez transmititzen diren gaixotasunak ugariak dira, eta ekintza hain erraz batekin ekidin ditzakegu, ume nahiz heldu.

Baziren garaiak ur garbia eta xaboia guztion esku ez zeudela, gaur egun, zorionez, ez hori bakarrik, urrik gabe ere eskuak ondo garbitzeko produktuak ere eskura ditugu, ez dago aitzakiarik, bada-kizue, osasuna zaindu, eskuak garbitu.

“Gure artean eskuen bitartez transmititzen diren gaixotasunak ugariak dira, ekintza erraz batekin ekidin daitezkeenak”

*unai artetxe*

Koloreak

Beltzarana da Miguel. Zuria Nahia. Zazpi bat urte izango ditu lehenak; pare bat gehiago agian bigarrenak. Biak ikastola berera doaz, biek batera jolasten dute jolas-orduan. Miguelek eta Nahiak ez dituzte koloreak bereizten. Lagunak dira beste ezzerren gainetik. Adiskideak besterik ez.

Arrosak dira berez neskontzako txokolatzeko arrautza ezagunak. Urdinak, mutilenak. Barruko sorpresa halakoa edo bestelakoa izaten da kanpoko kolorearen arabera. Gizarteak, gizakiok, batzutan, askotan, gehienetan, barrukoari baino kanpokoari begiratzen diogulako. Eta hor, oharkabean edo jabetuta, guk geuk ere urdina eta arrosa, arrosa eta urdina, bereizketa egiten dugu.

Lagun batzuk ditut, Maria eta Jon, umea izan nahi baina lortu ezin zutenak. Kostata, baina horrelako batean lortu dute, eta hara, biak izango dira. Albistea eman zutenetik ehundaka jantzi urdin eta ehundaka arrosa jaso dute opari. Baietz asmatu zein kolore dagokion ume bakoitzari?

Lagunok, koloreak kolore baino ez dira. Askotan batu baino banatu egiten gaituzte. Izan gaitezen tolerantetago eta irekiago urdina gustoko duenarekin, arrosa, berdea edo gorria atsegin duenarekin moduan. Eta ahalegindu, tarteka bada ere, kolore ezberdinekin jazen. Pluraltasunaren izenean, ez gaitezen bilakatu kolore bakarraren jabe.

“Koloreak kolore baino ez dira, askotan batu baino banatu egiten gaituztenak; ahalegindu beharko ginatete kolore ezberdinekin jazen”



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

EROSKETAK, DENDAN EDO INTERNETEN?

URRIA



GAZTEON!

...eta kitto!

Egilea: **MALEN ILLARRAMENDI**

GRATZINA
(OLATZ ETA ANA BELEN)



EROSKETAK ON ala OFF LINE?

Ukaezina da teknologia berriek ohitura handiak ekarri dituztela gure bizitzetara, batez ere, gazteonetara, eta dudarik gabe, erosketen mundua da horietako bat. Izan ere, Interneten denetarik eros dezakegu: bidaiak, arropa, osagarriak, oinetakoak, janaria ... Ez dago erosi ezin denik. Hala ere, iruzurrik ere bada horrelako salerosketetan, eta kontuz ibili beharra dugu, urrutiko intxaurrak hamalau bai, baina badakigu gerturatuta askotan lau besterik ez direla izaten.

.....

Txanponaren beste aldean betiko dendak ditugu, txikiak, gertukoak, familiarrak askotan. Internetek gure inguruko denda bat baino gehiago ere ixtera behartuko zuen! Nola lehiatu dezakete saltzaile erraldoiarekin? Lehengo modura funtzionatzen dute ala egokitzapenak egin behar izan dituzte bizirik irauteko? Honetaz guztiaz berba egiteko dendari eibartar gazte bat izango dugu solaskide, Olatz Mandiola, unibertsitate-ikasketak etxeko negozio txikiko lanekin bateratzen dituen, eta bere ama, Ana Belen, negozioaren ardura daramana. Horrez gain, kaleko jendearekin ere hitz egingo dugu, erosterako orduan eibartarron ohiturak zeintzuk diren jakiteko.

.....



gain, erosgaiak bertatik bertara ikusi eta ukitu daitezkeela diote, eta pantailak gehienetan ez duela errealitatea (kolorea, neurria, oihala, kalitatea...) islatzen.

Zalantza izpirik ez dute: *“Inoiz ez genuke Eibarren eros dezakegun ezer Internet bidez erosiko, dirua herrian bertan gertzea garrantzitsua iruditzen zaigu-eta”*. Dendako generoa internet bidez saltzea inoiz pentsatu ez badute ere, aitortzen dute sare sozialak erakusleigo gisa erabiltzen dituztela, tresna ona baitira mundura zabaltzeko. Aurrera begira, teknologietara egokitzen joan beharko dutela onartzen dute, betiere, denda txikien esentziari eutsiz.

Eta eibartarrek zer diote?

Kalera ere jo dugu, eibartarron iritzia ezagutzeko. Zer diote?

Ama-alabek diotenez, ez dute Interneten erosteko ohitura handirik, eta erostekotan, bidaiatxartelak edota hotelak erreserbatzen dituztela. Dena den, sareak aukera zabala eskaintzen duela ez dute ukatzen eta klik baten bitartez mundua eskura dugula pantailan. Internetek merkataritza gutxi bartzuen esku utzi duela aitortzen du Anabelenek: *“Amancio Ortega, Inditex-eko sortzailea eta Jeff Benzos, Amazoneko jabea,*

nagusitu dira merkatuan denda txiki askoren kaltetan”.

Bikoteak argi du denda txikietan erosteak abantaila ugari dakartzala, izan ere, haien ustetan, *“Interneten edo denda handietan erosita, gazte gehienak berdin edo oso antzera janzen dira. Denda txikietan, ordea, arreta pertsonalizatua goa denez, bakoitzaren nortasunera egokitutako arropa edo osagaiak eros daitezke”*. Horrez

Aurrez aurreko salmenta nahiago duela dioenik badago, dendetan erostea delako erosoena eta azkarrena: produktua ukitu, usaindu, probatu... daitekeelako, eta horrela ez dagoelako erosketa okerra egiteko arriskurik. Gainera, momentuan bertan daukagu produktua gure eskuetan, itxaron beharrik ez dugu, eta ez dugu gure erosketa noiz helduko den erne ibili beharrik. Horrela diotenek argi

daukate: *“Herriko dendetan eros dezakeguna ez dugu internet bidez begiratu ere egin-go; izan ere, dirua gastatzeko herria baino aproposagorik ez dugu ikusten”.*

Baina bada erosketak teknologia berrien bitartez egitea nahiago duenik ere, jakina. Denbora falta, erraztasuna, erosotasuna... dira haiek aipatzen dituzten abantailak. Etxe-

tik bertatik, inora mugitu gabe, 2 eguneko epean eskatutakoa etxera heltzeko aukera izanda, zertarako galdu denbora dendaz denda? Gainera, erosketarekin konforme egon ezean, erositakoa inolako kosturik gabe itzultzeko aukera ematen dute.

Hori bai, iritzi batekoek zein bestekoek diote garrantzitsua dela herriko dendetan erostea.

Esanak esan, herritarren iritziak kontuan hartuta, badirudi oraindik ere eibartarron artean aurrez aurreko edo off line bidezko erosketak direla nagusi. Eibarren dagoen komertzioaren kalitateak eta aukera zabalak zerikusia izango du horretan, denetarik aurki baitaiteke gure herriko dendetan. Uztargarriak dira on eta off line bidezko erosketak, zalantzarik gabe, baina, ezin daiteke ahaztu familia asko eta asko bizi direla denda txikiei esker. Beraz, ez genuke urteetan sortutako altxor preziatu hori galtzen utzi behar.



ERREPORTAJEA ONLINE

Protagonisten hitzak gertuagotik ezagutu nahi badituzu, edota irakurri beharrean nahiago baduzu bideoz ikusi, ez zazue galdu YOUTUBE-n “gazteOn! eta kitto” kanalean dagoen bideoa.

Hona hemen esteka:

<https://youtu.be/hGcXNR-SozQ>

EZ EZAZUE BIDEOA GALDU ETA EMAN IZENA KANALEAN!



Euskaraz hitz egiten badakizu? Euskaraz hitz egiteko gaitasunik eduki ez arren, zerbait uler dezakezu? Konturatu al zara, orduan, elkarrekin euskaraz egin dezakegula? 11 egun euskaraz, egingo al dugu proba?



AHOBIZI bazara, Euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko zara euskaraz. Ezagutzen ez dituzunekin lehen hitza euskaraz egingo duzu, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai.



BELARRIPREST bazara, Euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbitea egingo diezu. Euskara ulertzen duzula adieraziko diezu eta zurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu. Zuk euskaraz edo erdaraz erantzungo duzu, baina zuri euskaraz egiteko eskatuko duzu.

IZEN-EMATE EPEA ZABALIK
izenematea.euskaraldia.eus



gaztekitto



gazteOn! eta kitto



...eta kitto!



IDOIA LAHIDALGA

Dantzak homosexual egiten al ditu mutilak?

Aste Santuan Madrilera joan nintzen eta aspalditik ikustea pentsatuta neukan Billy Elliot musikala ikusteko aukera izan nuen beste askorekin. Betidanik gustatu izan zaidan pelikula bat izan da, transmitzen dituen baloreengatik batez ere.

Udan dantzan.eus-en “Dantzak homosexual bihur zaitzakeela uste duen jende hori” zioen sarrera bat irakurri nuen. Hungarian Billy Elliot musikala eten zutela zioen, mutikoak gay “bihurtzeagatik”. Egunkari kontserbadore batek egin zuen kanpainia homofobo batengatik kendu omen zuten musikala.

Tamalez oraindik ere, gure gizartean oso mutil gutxik aukeratzen dute dantza eskolaz kanpo. Kattalin Arrizabalagak postean dioen bezala, badi-rudi norberaren generoarekin “zerikusia” duen roletik pixka bat aldentzen den zerbait egiten bada, beste generoen aldeko bihurtu eta ondorio bat izateko arriskua duela. Hala-ko ikuspegia, eskolatik kanpo egungo gizartean ikusi eta entzuten ditugun gauzetatik ikasten dugu; gehienetan inkonzienteki barneratzen ditugu, ohituretatik eta gizartetik ikasita.

Ikusten denez, oraindik badugu lan nahikoa egiteke. Benetan al gara uste bezain irekiak?

Eibarrek Athletic hartuko du etzi Ipuruan

Une honetan sailkapenean atzetik (hiru puntura) daukan Athletic izango du bisitari Eibarrek Ipuruan etzi, 16:15ean. Aurreko asteburuan ez zen jardunaldirik izan eta Mendilibarrek ia plantila osoa du prest jokatzeke, Pedro Leon, Escalante eta Paulo Oliveira kenduta. Bilbotarrak aurkari zailak izan dira Eibarrentzat azken denboraldiotan eta lautik hiru partidutan nagusitu dira Ipuruan. Hala ere, aurten oraindik ez dute garaipenik lortu San Mamesetik kanpo. Garrantzizko puntuak izango dira jokoan.



Entrenatzaileendako ikastaroa

Oinarrizko Mailako Foball-entrenatzaile ikastaroa hasiko dute ematen azaroaren 9an eta barixakuero eskainiko da jarraian (bost ordu egunero), gero ekainean beste sei klase praktikoekin amaitzeko Ipuruko instalazioetan. Ikastaroaren prezioa 900 euro da eta bi zatitan ordaindu daiteke. Aurrematrikula zabalik dago: fgf@escuelaentrenadores.com edo 943.473109 / 943463022 (asteunetan, 16:00etatik 19:00etara)

Akziodunen Batzarra datorren astean

Hilaren 23an (lehenengo deialdian) eta 24an (bigarrenean) egingo den Batzarrerako botazio telematikoa martxan dago atzotik klubaren web-ean zabalduak apartatuan. 11.000 akziodunek Kontseiluak aurkeztutako kontuak onartu ditzakete hor.



VI. Asier Cuevas herri-lasterketak giro berezia izango du

Eibarko Klub Deportiboko atletismo batzordeko antolatzaileek ahalegin berezia egin dute proba hori herritarri ahal gehien gerturatzeko. Hori dela-eta, hainbat neurri hartu dituzte, zirkuitua aldatzearena, musikaz girotzearena eta taldeka parte-hartzearena tartean. Herri-lasterketak betiko distantziari helduko badio ere, hau da, zazpi kilometro eta erdikoa izaten jarraituko duen arren, oraingoan hiru itzuli eman beharko dio ibilbide honi: T. Etxebarria/Untzaga/Calbeton/Bidebarrieta/Urkiu/Barrena/Barakaldo/Urkiu/Arragueta/Errebal/T. Etxebarria. Lasterketa guztiona nahiz horretan, "jaia bihurtzea da asmoa, Aixolako San Silbestren lortzen den giroa Eibarko

kaleetara jaitsiz". Helburu horrekin, musika izango da Urkizun eta "T. Etxebarriara igoko da azken parte-hartzaileen atzetik". Aurrekoa gutxi balitz, taldeak antolatzeko asmoa ere agertu dute antolatzaileek, "lasterketa lasai egin nahi dutenentzat, talde bakoitza bere arduradun-animatzaileekin". Aurrez jakinarazi moduan, badago taldeka parte hartzeko aukera (emakumezko eta gizonezko bina osatutako laukoteak) eta zozketa bereziak izango dira eurentzat. Proba hasi aurretik Multikirola jardunaldia izango da 3. eta 4. maileko umeekin eta, iazko edizioari jarraituta, kirol egokituko esperientzia bizitzeko aukera izango da, Eibar Fundazioaren laguntzarekin.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Eibar - Athletic (etzi, 16:15)

Emakumezkoen 2. Maila

Eibar - At. Revellin (etzi, 12:30)

2. B Maila

Vitoria - Barakaldo (bihar, 18:00)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Tolosa (etzi, 16:00)

Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Hondarribia (bihar, 18:00)

1. Erregionala

Eibartarrak - Urki (etzi, 17:30)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Pamplona - Eibar (etzi, 18:00)

Euskal Liga

Lagun Onak - Eibar (bihar, 16:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Eibar - Vasconia (bihar 15:45)

FOBALL-ZALETUA

Ipur Sagard. - Larrages (bihar, 09:00)

Bar Areto - La Jara Hiru (bihar, 10:30)

Bar Txoko - Azkena Adahi (bihar, 12:00)

Feredu Solutions - Slow XOK (etzi, 09:00)

JMR Erreformak - Durango (etzi, 09:00)

Chic - Garajes Garcia (etzi, 10:30)

ESKUBALOA

1. Nazional Maila

Beti-Onak - Somos Eibar (bihar, 18:00)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Corazonistas - Eibar Eskub. (bihar, 18:30)

Gipuzkoako 1. Maila

Labarra Pulpo - Haritza (bihar, 16:00)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Getxo - Avia Eibar (bihar, 18:30)

Emakumeen Euskal Liga

Gernika - Avia Eibar (bihar, 17:30)

Euskadiko 2. Erregionala

Zaisa Irun - Avia Eibar (bihar, 17:00)

SASKIBALOA

Gipuzkoako 3. Maila

Zalburdi Deba - Katu Kale (gaur, 19:30)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Claret Askartza - Urvat IKE (bihar, 20:30)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Castellae - Urvat IKE (bihar, 14:30)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

Izena emateko 12 euro ordaindu beharko da. <http://www.sailkapenak.com/es/evento/vi-asier-cuevas-herri-lasterketa-2018/inscripcion/formulario> helburuan egin daiteke edo, bestela, Deporren bertan, flyerra beteta eta barran lagata diruarekin, edo eguaztenetan, 19:30etik 20:30ak arte. Edozein zalantzarak 635744163 telefono zenbakira deitu dezakezue.

Udazkentraila jokatu da hilaren azken domekan

Urtaro honetarako proposamenarekin datozkigu Kalamua Korrikalari Taldekoak, *"mendiaz, lagunarteaz eta kirolaz gozatzeko gogoz"*. Oraingoan desnibel gutxi eta antxintxiketan dezentz egiteko ibilbidea prestatu dute, *"ezezaguna den Moru tontorrera"* eramango dituen. Elgoibarko San Pedrotik gertu dagoen tontorra urteetan pinu artean ezkutuan egon da, baina azken aldian botatuko pinuei esker *"amanita formako buzoia bista geratu da eta handik bailara guztiaren ikuspegi ederrarekin gozatu daiteke"*. Hilaren azken domekan urtaro honi dagokion traila (2018ko egutegiko hirugarrena) goizeko 08:30ean abiatuko da Deportiboaren aurretik eta, 18 kilometro *"erraz"* egin ondoren, handik hiru ordura amaituko dute. Goranzko desnibel edo garaiera metatua 800 metrotik gorakoa da eta punturik altuena 518 metro izango da. Antolatzaileek diotenez, nahiz eta ibilbideak arazorik ez eskaini, *"makilak ez dira inoiz soberan egoten"* eta honako materialak eramatea gomendatzen da: mendian korrika egi-



teko oinetakoak, telefono mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait. Jarduera doakoa da eta, izena emateko, interesatuek kalamua-korrikalaritaldea@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Aitor Hernandezek podiumaren gorenaz besterik ez du ezagutzen

Hirutik hirutan irabazle: denboraldi hasiera ezinhobea dihardu egiten Aitor Hernandez ermuarrak. Kantabrian estreinaldian lortutako garaipenari aurreko asteburuan Urduñan eta Burgosko Fresno de Rodillan eskuratutakoak gehitu dizkie Ermukoak. Denetariko eguraldiarekin jokaturako probak izan dira, gainera: hegohaizea eta lokatzik gabe barixakuan Urduñan jokaturako euskal egutegiaren barruko lehenengo proban, eta euritsua eta lur astunagoarekin Burgoskoan. Bizkaiko ziklo-kros proban 40 segundo baino gehiago atera zizkion Ismael Esteban bigarren sailkatuari eta Xabier Murias hirugarrenari. Eta Burgosen Aitorrek hasieratik ihes egin zuen eta erraz nagusitu zituen Murias eta Martin Matari.



Atezainen lana garrantzitsua izan zen Somos eta Haritzaren garaipenetan

Aurreko asteburuan Eibar eskubaloiko lehen taldeak ligako lehen garaipena eskuratu zuen Uharteko talde nafarraren aurrean eta, 26-20 horri esker, zertxobait aurrera egin du sailkapenean. Azken sailkatuak, dena dela, ez zuen erraztasun handirik eskaini eta atsedenaldian, esaterako, markagailuak 11-10 estua erakusten zuen. Iñaki Peralesek lehen zatian eta Ruben Fuentesek bigarrenaren ate azpian egindako lanak garrantzi handia izan zuen garaipen horretan, eta maila berekoa eman behar zaio Jorge Martinezen lanari Haritzaren garaipenean La Salle Legazpiren aurkako partiduan. Golak sartzeko orduan, Axier Gisasola, Mikel Oregi eta Mikel Zuloaga nabarmendu ziren Somosekin, eta Egoitz Blanco eta Aitor Cruz Haritzarekin. Asteburuan Somosek Villaban jokatu du hurrengo jardunaldiko partidua eta Haritzak Zumaian.

Gaztaren Ibilbidearen 4. etapa egingo dute bihar Deporrekoek



Mirandaolan hasi eta Arantzazun amaituko den 12 kilometroko etapa osatuko dute Klub Deportiboak antolatutako irteera horretan parte hartuko duten mendizaleek. Gaztaren Ibilbidea deitutakoaren laugarren etapa izango da biharkoa, 445 metrotatik 1.190ra igotzeko aukera eskainiko duena. Ia bost orduko iraupena izango du eta gauza bat baino gehiago ditu ikusgai: hasi orain dela urte batzuetatik berri eta martxan dagoen Mirandaolako burdinolatik eta Telleriarte auzoan dago-

en Artzaintzaren Ekomuseotik jarraituta. Museotik aurrera, Brinkola pasa eta Barrendiolako urtegia inguratuta, Jandoainen dauden benetako artzain-txabolekin egingo dute topo. Biozkomako lepora iristerakoan erdietsiko dute bideko punturik garaiena eta Mallarako behealdean tumulo bat bazkatzen duten zaldien lekuko izango da. Behin hara helduta, Duruko txabolak pasatuta, Arantzazun izango dira. Aurreko irteeretan bezala, oraingoan ere gazta bat zozketatuko da parte-hartzaileen artean.



Euskal Herriko hiru-txirlo txapelketa abiatuko da bihar Bolibarren

Lau jardunaldietan jokatuko den Euskal Herriko 29. hiru-txirlo bola joko txapelketa ipiniko da martxan bihar Ziortza-Bolibarko Iruzubieta-ko bolatokian. Hurrengo zapatuan, hilaren 27an, bigarren jardunaldia jokatuko da Bergarako San Joxepen eta, Domusantuko zubian atseden hartu eta gero, azaroaren 10ean eta 17an Markina-Xemeingo Barinagako eta Elgoibarko San Migueleko bolatokietan hurrenez hurren jokatuko diren tiraldiekin amaituko da aurtengo txapelketa. Bola Jokorako Euskal Federazioak antolatutako txapelketako tiraldiak 17:00etan hasiko dira zapatuetan eta izena emateko 5 euro ordaindu beharko da.

Juan Luis Tueros Gipuzkoako txapeldun golfean

Aurreko domekan Oñatiko Irelore golf eskolan jokatutako senior mailako Gipuzkoako Pitch & Putt golf txapelketan gure herriko Juan Luis Tuerosek txapela jantzi zuen. Aurtengoa txapelketaren laugarren edizioa zen eta Eibar Golf Pitch & Putt klubeko ordezkariak lan bikaina egin zuen, jardunaldi osoan maila altuko jokoa eginez eta nagusigoa erakutsita.



Kalamuako Iker Martinez Europako jiu-jitsu txapelketan

Datorren asteko eguaztenetik, hilaren 24tik, hurrengo asteko astelehenera arte Italiako Bolognian jokatuko den junior mailako jiu-jitsuko Europako txapelketan izango da Kalamuako Iker Martinez. Eibartarrak Espainiako selekzioa ordezkatu du denboraldian zehar nazional mailan irabazitako dominei esker eta iaz Atenaseko Mundialean eskuratutako 7. postuari eustea da bere asmoa.



Euskal Herriko 100 mendi ederrenen fitxak egin dituzte Deporrek



Treviño, Etxeberria eta Zendoia Elorretan.

Eibarko Klub Deportiboko mendizale talde batek azken lau urteetan egindako proiektua aurkeztuko du datorren asteko martitzenean. Arratsaldeko 19:00etan hasiko den ekitaldian izango dira Julian Etxeberria, Andoni Zendoia eta Angel Treviño egileak: "Hasieran Roberto Larrañaga eta Mikel Lizarruri ere izan ziren gurekin, eta gaur egun dozena bat lagun baino gehiago dihardu parte hartzen". Proiektuan Euskal Herriko zazpi lurraldeetako 100 mendi ederrenetarako irteerak egin dituzte eta datu guztiak dokumentatu; lan guzti hori webgune baten jarri dute eta jendeari aurkeztuko diote. Mendi bakoitzaren fitxan, "bertara iristeko datuak, ibilbi-

dea, GPS bideak, argazkiak eta bestelakoak" aurkeztu daitezke.

"Gure mendizaletasunari antolatutako irtenbide berria" eskaintzeko asmoz, Euskal Herriko lurralde guztiko mendiak sartu dituzte, "mendi-kate eta bailara gehien ezagutzeko". Mendi batzordeko partaideen iritziz guztiak jaso ondoren, "Iparraldeko 10, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 20na eta Nafarroako 30ekin" osatu dute zerrenda. Lan guzti horri esker, edozein mendizalek era erraz baten ikusi eta deskargatu ditzake mendi ezagun horietara joateko jarraibideak, izan ere edonork egiteko moduko irteerak direlako lan honetan aurkeztuko ditugunak.

M^a Carmen Arrate Gandiaga

(2018KO URRIAREN 13AN HIL ZEN)

"Inoiz ez zaitugu ahaztuko"

BEGOÑA eta ZIORTZAren partez



Lanbidez dentista den Maitena Urberuaga mediku eta odontologoak "Análisis historiográfico de la Odontología en Gipuzkoa en el siglo XX" tesiaren aurkezpena egin zuen uda aurretik Salamancako Unibertsitatean. Izatez lekeitiarra da, baina 23 urte daramatza Eibarren bizitzen. Bere lanean lehenago hasi bazen ere, orain dela 17 urte zabaldu zuen Blas Etxebarria kalean daukan horts-klinika. Horretaz gain, Eibarko Anbulatorioan ere egiten du lan haginlari moduan.



MAITENA URBERUAGA (odontologoa): "Rafael Aranda bezalakoan memoria ezin da galdu"

- Kontsulta pribatuan eta Anbulategian egiten duzu lan. Horretaz gain, zure lanarekin zerikusia daukaten mila saltsatan sartuta ibiltzen zara.

Nire lanetik aparte, beti gustatu zait dibulgazio lanetan jardutea, aldizkari zientifikoetan artikuloak argitaratzea, kongresuetan lanak aurkeztea, ikastaroak ematea... Mendaroko ospitalean orain dela 5 urte antolatzen ditugun jardunaldietan, estatu eta nazioarte mailako hizlariak ekartzen ditugu. Datorren urtekoa martxoaren 15ean izango da eta, berritasun moduan, Eibarko ospital berrian izango dela esan daiteke. Goi mailako hizlariak ekartzen ditugu eta beti izan dira oso jardunaldi arrakastatsuak.

- Hainbeste gauzarekin, nola animatu zinen tesi doktorala egitera?

Aukera bat sortu zitzaidan. Oso zaila izaten da gaia aukeratzea. Bizkaia eta Arabako dentistei buruz badago zerbait idatzita, baina ez Gipuzkoakoei buruz. Zer aurkituko nuen jakin barik hasi nintzen ikertzen. Gipuzkoako artxibo guztietan ibili naiz eta zerbait aurkitu dudala esan dezaket. Urte bi egon naiz burubelarri tesia lantzen eta uztailaren 5ean aurkeztu nuen Salamancako Unibertsitatean. Esan beharra daukat Gipuzkoan aberastasun itzela daukagula artxiboetan, eta Eibarko artxiboko Yolanda Ruiz aipatu nahiko nuke. Oso ondo antolatuta dauka dena eta esfortzu handia egiten du laguntzeko.

- Zer da zehazki ikertu duzuna?

Gipuzkoako sasoi nahiko luzea aztertu dut, XIX. mendeko azken urteetatik XX. mendeko 70. hamarkadara arte. Zelan sor-

tu zen Odontologoen Kolegioa edo Elkargoa, nolakoak izan ziren lehenengo kolegiatuak, zeintzuk ziren euren kezkak... Eta zentzu honetan, dentisten arduetako bat pobleak zirela esan beharra dago. Sasoi hartako odontologoei buruz gauzak topatzea zaila da: herri bakoitzak medikua, praktikan-tea, albaitaria eta, batzuetan, matrona zeukan kontratauta. Baina odontologoak ez dira inon agertzen. Odontologia beti medikuntzaren atzetik joan da eta intrusismo handia egon da estatu mailan eta baita atzerrian ere. Jende desegokia ibili da arlo honetan (kuranderoak, sakamuelasak, barberoak...). 1875an "zirujano dentista" titulazioa sortu zen eta 1901ean heldu zen odontologia unibertsitatera, baina aurretik medikuntza egin behar zen. Ondoren, titulazio horrek aldaketa asko izan ditu eta gaur egun lizentziatura edo odontologia gradoa dago; beraz, ez da zertan medikua izan behar. Odontologoen Elkargoa ere nahiko berandu iritsi zen, 1930ean. Eta hori lagungarria izan zen intrusismotik babesteko, arauak jartzeko, lanbide hau goratzeko eta profesionalei babesa emateko (garai hartan odontologo asko pobrezian hiltzen ziren).

- Zer aurkitu duzu gure herriari buruz?

Eibarren agertu diren datuei dagokienetz, nik ez dut aparteko gauzarik egin: gordeta zegoen informazioa kanpora atera dut. 1911an zirujano dentista bik euren burua eskaini zioten Udalarri pobleak zaintzeko: Remigio Guimón eta Luis Meléndez. Luis Meléndez Bilbotik etorri zen eta Remigio Guimón Bergararik. Azken hau Eibarko al-

katea izan zen. Garai hartan ez zegoen babes publikorik, gaur egun Osakidetza moduan ezagutzen duguna. Udalak txiroen zerrrenda egiten zuen, eta Diputazioak emandako dirua "pobreen karneta" zutenen artean banatzen zuen, medikuen zerbitzuak eta botikak ordain zitzaten. Sasoi hartako gizarte nolakoa zen pentsatu behar dugu: baserri giroa, elikadura nahiko txarra, klima gogorra eta gaixotasun asko. Umezurtz asko zegoen, eta emakume asko bakarrik gertatzen ziren seme-alabekin. Odontologo munizipalaren figura ez zen existitzen, eta, horrexegatik, sasoi hartako dentistek borondatez zaintzen zituzten pobrezian bizi ziren haiek. Lan hori euren kontsulta pribatuan eta euren materialarekin egiten zuten. Hau Gipuzkoa osoan gertatzen zela ikusi dut (Irunen, Tolosan, Azpeitin, Oñatin, Bergaran, Zumarragan, Erreterian...).

- Eibarren, errepublikaren sasoiaren odontologo munizipalaren figura sortu zen eta hor azpimarratzekoa da Eibarren oso ezaguna izan zen eta oraindik batzuk ondo gogoratzen duten Rafael Aranda Marcuello.

Donostia (1917) eta Eibar (1934) izan ziren odontologo munizipala oposaketa bitartez eduki zuten herri bakarrak. Bigarren Errepublikan, jakina denez, gogo handia egon zen osasunaren eta hezkuntzaren alorrean gauzak ondo egiteko. Eibarren udal lanpostu horren sorrera bultzatu zuten zenbait pertsona izan ziren, eta horietako bat Rafael Aranda Marcuello izan zen. Madrilen jaio zen, Union Republicana alderdikoa zen

eta Remigio Guimónen kontsulta erosi zuen 1932an. Rafael Arandak Estaziño kalean izan zuen lehen kontsulta. Prestakuntza handiko odontologoa zen, eta 1934an Eibarren sortu zen udal plaza berarentzako izan zen. Lanpostu horren oinarrietan azaltzen zen pobreak atenditu behar zituela, langabezia zeudenak, eskoletako umeak eguen eta zapatuetan, mojen konbentura joan behar zen, turberkulosoen ospitala zen bere beste arduetako bat... Ahoko osasunari buruz arduratu zen beste mediku bat aipatu nahiko nuke baita ere, Niceto Muguruza. Antxon Narbaizak Muguruzatarrei buruz idatzitako liburuan irakurri dudanez, Niceto Muguruza Eibarko osasun laborategiko burua izan zen eta Academia de Ciencias Médicas-ek ematen zuen sari bat irabazi zuen, umeen ahoko higienari buruzko lanarekin.

- Nolakoa zen Rafael Aranda?

Aipatu dugun lanaz aparte, Errepublikan garai hartan osasunari buruzko hitzaldi dibulgatiboak ematen zituen Kruzetaren antzokian eta Klub Deportiboan, beste mediku batzuekin batera. Gerra iritsi zen eta sei urtera kondenatu zuten. Irten zenean lanpostua kendu zioten eta 1950ean berreskuratu zuen, baina dirua ez ziotela bueltatuko esanez. Gipuzkoako Elkargoan ere inhabilitatu egin zuten. Kartzelatik oso makaldu ta atera zen. 1970era arte egon zen lanean. Bere lanari buruz ez zaigu ezer gelditu. Kartzelan egon zen denboran bere etxea saketua izan zelako eta Eibarko Udaletxea eta artxiboa erre egin zituztelako. Pena da, baina ziur nago bere lana oso interesgarria



Rafael Aranda dentistak Estaziño kalean zabaldu zuen bere kontsulta 1934an eta oso ezaguna izan zen Eibarren.

izango litzatekeela. 1970ean, lan egiteari utzi zionean, bere liburutegi pribatuko liburu guztiak Elkargora eraman zituen eta handaude orain, Donostian.



Maitena Urberuagaren tesia TESEO-ren webgunean dago eskuragarri.

- Ikusten denez, Eibarren lan handia egin zuen gizona izan zen Aranda dentista.

Eibarrentzat lan ikaragarria egin zuen. Bere kontsultako denbora eskaintzeaz gain, esan beharra dago udal lanposturako gauza asko ordaindu zituela bere poltsikotik, esate baterako, X izpiko aparatu bat. Horrelako pertsonen memoria ezin da galdu. Rafael Arandaren eskuetatik pasatutako paziente asko ditut nik, eta denek gizon jatorra eta zintzoa zela esaten dute. Pertsona ona, apala, eta nik ikusi ditudan lanak oso ondo egingakoak dira. Oso argi zeukan zer egin behar zen eta zer ez, eta oso leiala zen bere idealekin. Eibarko emakume batekin egon zen ezkondata. Lana utzi ondoren Bilbora joan zen bizitzera eta bere alaba han bizi da. Hemen, Eibarren, iloba politiko bat dauka.

- Informazio-iturriak zeintzuk izan dira? Lan gogorra izan da?

Gehienbat Euskal Herri osoko artxiboak izan dira, Eibarkoa barne, eta ondoren hermeroteketako aldizkari eta egunkariak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, Eibarko Juan San Martin liburutegiko boletinak... Ikerketa hauek nahiko astunak izaten dira eta, azkenean, zure barrurantz egiten duzun ikerketa bihurtzen da. Bide bat hasten duzu nora helduko zaren jakin gabe, eta zure ahalmenean konfidantza izatea ezinbestekoa da. Niri horrelako gauzek ilusio handia ematen didate. Momentu gogorrak izan ditut. Bi urte pasa ditut alde batetik bestera, liburu eta akta pila baten artean, baina zoezer topatzen nuenean kriston emozioa sentitzen nuen. Eta bidean lagundu didaten pertsona batzuren eskuzabaltasunak asko hunkitzen nau.

Zure enpresa erakusteko leku aparta

GIDA
KOMERTZIALA 2019

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
 943 20 67 76
 www.etakitto.eus





FERNANDO RETOLAZA: Arrate, berezia beti. Eta batzuetan, gehiago.

Hirugarrenez antolatu dute Debabarreneko Gaztaren Astea Debemen Debabarreneko Landa Garapen Elkarteak, Eibarko Udalak eta eskualdeko hainbat gaztandegik. Gaur arratsaldean, 19:15ean udaletxeko patioan egingo den sukaldaritza erakustaldi-dastaketarekin hasiko da urriaren 28ra bitartean garatuko den egitaraua. Programaren barruan, besteak beste, eskualdeko gaztandegiak ezagutzera joateko doako bisitak eskainiko dituzte eta domekan, berriz, goiz osoan zabalik egongo den Gazta Azoka hartuko du Untzaga plazak eta, horrez gain, artalde bat herriko kaleetan ikusteko aukera izango dugu.



Domeka eguerdian Untzagan egongo dira Mandiola Goikoa baserritik kalera jaitsiko dituzten ardiak.

Eskualdeko gaztagintza, bertatik bertara

Gaur arratsalderako "Gaztarekin jolastuz" izenburuko "Show Cooking" edo sukaldaritza erakustaldia eta dastaketa antolatu dituzte, Debabarreneko artzaintza eta eskualdeko artzainek egiten duten lana jendeari gerturatzeko asmoz. Eibarko udaletxeko patioan egingo dute saioa, 19:15etik 20:30era bitartean, eta Mikel Garaizabal enologo ezagunak eta Oskar Treviño sukaldari eibartarrak eskainiko dute. Eskualdeko gaztekin, txakolinarekin eta sagardoarekin jardungo dute biek, jendaurrean zuzenean, aipatutako horien arteko maridajeak eta beste hainbat gauza azaltzen (saioa euskeraz izango da). Horrekin batera, dastaketa ere egingo

dute Debabarreneko Sosola, Mausitxa eta Goienetxeko ardi gaztarekin, Axelekuko behi gaztarekin eta Egotzako ahuntz gaztarekin. Eta, horiei laguntzeko, bertako edariak egongo dira: Mutrikuko Sagarmiña eta Itziarko Flysh txakolinak eta Itziarko Txindurriturrin egindako sagardoa. 40 bat lagunentzat tokia egotea aurreikusi dute eta, saioan parte hartzea doan izango den arren, aurretik izena ematea eskatu dute antolatzaileek, Debemenera, 943-744067 telefonora deituta.

Gazta Azoka, domekan Untzagan

Domekan, goizeko 10:00etatik 14:00etara, Gazta Azoka egingo da Untzaga plazan. Aurreko edizioetan bezala, azokan eskualdeko gaztagileek egiten dituzten gazta ezberdinak probatzeko eta erosteko aukera izango da. Gainera, azokaren inguruan hainbat erakustaldi antolatu dituzte: Elgoibarko Mausitxa baserriko Iñaki Ansolak gazta egiteko prozesua erakutsiko du, 11:30etik 12:45era bitartean. Latxa ardiaren artilea eraldatzeko prozesua ere bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da eta, horrekin batera, Ipar Arrinda eta Mikel Etxebarria ardi moztailleek artile mozteta erakustaldia egingo dute, 11:00etatik 14:00etara.

Miren Torrealdai eibartarrak, berriz, irute eta artile lanen inguruko erakusketa eskainiko du, 10:00etatik aurrera. Horrez gain, umeentzat irute tailerra prestatu dute eta puntu eta kakorratz topaketa ere egingo da. Eta gutariko gehienontzat bixia den irudia ekarriko digu egunak: Eibarko Mandiola Goikoa baserritik jeitsiko duten artaldeak herriko kaleak zeharkatuko ditu aurten ere, 11:30etik aurrera. Jarrera, 12:00etatik 13:30era bitartean ardiak Untzaga plazan egongo dira, ikusi nahi dituzten guztientzat.


Mausitxa eta Goienetxe baserrietara bisitak

Debabarreneko Gaztaren Astearen barruan antolatu dituzten bisitetan parte hartzera animatzen direnek, bestalde, gure inguruan gazta egiten duten abeltzainak nola bizi diren eta gazta nola egiten duten bertatik bertara ikusteko aukera izango dute. Lehen bisita gidatua Elgoibarko Mausitxa baserrira izango da, bihar 11:00etan. Ordubete inguruko iraupena izango du bisitak, doakoa izango da eta, gainera, ardi-gazta txapelketetan sari ugari jaso dituen Mausitxa baserriko gazta dastatuko dute. Eta urriaren 28an, berriz, Mutrikuko Goienetxe baserrira egingo dute bisita, Olatz auzoko plazatik 11:00etan abiatuta. Batean zein bestean, euskeraz emango dituzte azalpen guztiak. Interesa dutenek Debemenen bulegoan (Elgoibarko merkatu plazan) edo 943744067 telefonora deituta eman beharko dute izena.



Sukaldaritza erakustaldia eta dastaketa gaur izango da.

JOSE FELIX AZKARATE "XARRA" (Gaztelupeko Hotsak): "Erritmo berokoa izango da The Tibbs taldeak etzi eskainiko duen kontzertua"



Gaztelupeko Hotsak diskoetxeko arduraduna da "Xarra", Ubane Uzinekin batera. Soraluzeko Gaztelupe tabernan hainbat urtez kontzertuak antolatzen jardun ondoren, euren gustuko musikarien diskoak argitaratzeko bideari ekin zioten zigilu horrekin. Azken aldian Portalea musika kluba proiektuaren ardura dute, Eibarko Udaleko kultura batzordearen eskutik, hilero kontzertu berezi bat eskaintzeko ordu eta egun berezian: domekero, 19:30ean orokorrean. Batzuetan, dena dela, "baliteke eguna aldatzea, edota Coliseoan egitea". Etzi hasiko dute denboraldi berria Portalean (19:30).

- Denboraldi berriari ekingo diozue domekako kontzertuarekin. Zein taldek bisitatuko gaitu?

Emanaldia The Tibbs Holandako taldearen esku etorriko da. Northern soul sutsuenaren ikasle eta funkaren oinarrien benetako jakitun, inolaz ere Europako retro soul esparruko talde onenetakoa osatzen dute holandarrak, sei musikari eta Esla frontwomanarekin. 60. eta 70. urteetako musika beltzetik edanda, hammonda eta haize musika tresnak ditu taldeak ardatz soinu sendo bezain azkarra eskaintzeko. Erritmo beroa jarriko dutela ez izan zalantzarik.

- Hortik aurrerakoa zenbateraino duzue lotuta? Hilero izango da?

Bai, denboraldi honetan urritik martxora behintzat -abendua alde batera lagata- hilero egongo da kontzertua Porta-

lean. Horrez gain, Coliseon ere egongo da saioen bat edo beste. Hurrengo egunetan joango gara izen guztiak zehazten. Azarokoa, esaterako, lotuta dago: Jawbone talde beteranoa etorriko da.

- Azken denboraldian izandako emaitzekin pozik zaudete?

Izen handiak pasatu dira Portalea musika klubetik. Hor ditugu Jimmy Barnatan & The Cocooners, The Buttshakers, The Godfathers, SugarDaddy & Cereal Killers, Julian Maeso, El Twanguero... Batzuetan taldeek egiten zituzten birak aprobetxatu ditugu, besteetan artistak espreski etortzea lortu dugu.

Coliseo antzokian ere egin ziren -eta egingo dira- kontzertuak, baina Portalea gune egokia dela baieztatu da berriro ere. Jendearen erantzuna positiboa izan da, gehienetan aretoa bete izan dute,

eta entzuleak, batzuetan gustura eserita eta besteetan zutik, dantzan edota txaloka. Lehialtasuna erakutsi digute beti, kontzertu guztietan.

- Musika estilo anitzeko programazioa eskaintzen duzue: eskertzeko moduko asmoa eta ez beti samurra musika taldeak aurkitzerako orduan.

Horregatik proposatu genien Eibarko Udaleko Kultura batzordekoei musika espazio berria sortzearena, eurak ere horren bila zebiltzan-eta. Portalea musika klubean kalitatezko emanaldiak antolatzear gain, askotariko estilokoak bilatzen ditugu, normalean gure inguruan entzuteko aukera gutxi izaten ditugunak: rock, roll, swing, soul, blues eta folk esparruetakoak. Eta entzulego ororentzat: musika zaleentzat, ikasleentzat, musikari berriak deskubritu nahi dutenentzat...

THE TIBBS



domekan, 19:30ean



HAMAIIKA BERBALDI!

Zer gertatzen da urriaren 31n, iluntzen duenean?
Josu Ozaita eta Jaime Altuna

Berbaldiak irauten duen bitartean, umeentzako zaintza egongo da

Urriaren 23an, 19:00etan
Portaleko Areto Nagusian

AKEBAI

Arimen Gauaren inguruko hitzaldia antolatu du AKEBAIk martitzenerako

"Zer gertatzen da urriaren 31n, iluntzen duenean?" izenburuko hitzaldia emango dute Josu Ozaitak eta Jaime Altunak datorren martitzenean, urriaren 23an, 19:00etan Portaleko areto nagusian. AKEBAIk antolatuta, Hamaika Berbaldi egitasmoaren baitan egingo den hurrengo berbaldian gure ohituren inguruan jardungo dute berbetan Arimen Gauaren ospakizunaren inguruan Euskal Herrian eman den bilakaera jasotzen duen ikerketa lanari esker 2015eko Juan San Martin beka eskuratu zuten bi antropologoek. Hitzaldian gaiaren inguruan izan ditzakegun zalantzak argituko dizkigute Josu Ozaitak eta Jaime Altunak. Bestalde, gaiak gurasoentzat duen interesagatik, hitzaldiak irauten duen bitartean zaintza tailerra egongo da 4-8 urte bitarteko umeentzat.



Barrez lehertzeko moduko antzezlanak gaur Coliseoan

Gaur 20:30ean "Por los pelos" antzezlanak taularatuko du Los Imprebis taldeak, Coliseo antzokian. Santiago Sanchezek zuzendutako lan honetan Rafa Alarcon, Carles Castillo, Marta Chiner, Juan Gea, Lola Molto eta Carles Montoliu antzezleek egiten dute lan. 'La cena de los idiotas', 'La ratonera' eta 'Taxi' moduko lanen ekoizleak Estatu Batuetako historian gehien antzeztu den lanarekin datoz gaur Eibarrera. Eskainiko duten antzezlanak barrez lehertzeko moduko polizia-komedia bat da eta, aurreratu dutenez, "erahilketa bat gertatzen da eta susmagarriak diren lau pertsona eta bi polizia ileapaindegi batean giltzaperatuta daude. Publikoak erabakitzen du hiltzailea zein den". Beraz, taularatzen duten bakoitzean amaiera desbedina duen lana da gaur aurkeztuko dutena. Sarriak 18 euro balio du (12,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).




Osasun-zientzietako ikertzaileen III. Topaketa Markeskuan

UEUK Osasun-zientzietako Ikertzaileen III. Topaketa egingo du urriaren 25ean, eguna, Markeskuan. Osasun ikerkuntza euskaraz egiten dela azalratzea eta euskal ikerlarien arteko harremanak sendotzea da jardunaldi honen helburua. Jardunaldia 09:00etatik 17:00etara egingo da eta urriaren 19ra arte eman daiteke izena bertan parte hartu ahal izateko. Aurreko topaketetan parte hartu zutenen ikerketen jarraipenaren berri izan eta talde berrien parte hartzea sustatu nahi dute antolatzaileek. Gainera, osasun-zientzietan diharduten ikerlari euskaldunen sarea ehuntzen jarraitzea da asmoa. Edizio honetan, oinarriko ikerketaz gain, ikerketa klinikoari tokia egingo diote eta Joxerra Furundarenak 'Osagaiz' osasun-zientzien aldizkariari buruz egingo du berba.


Urki taldearen argazki erakusketa zabaldu dute Untzagan

Atzoz geroztik bisitatu daiteke Urki kirol klubak, 40. urteurrena dela eta, Untzagako jubilatutako etxean zabaldu duen argazki erakusketa. Urriaren 28ra arte ikusgai egongo den erakusketa 19:15etik 21:30era bitartean zabalduko dute astelehenetik barixakura eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



Matxismoaren inguruko liburu aurkezpena

Eguaztenean aurkeztuko du Maite Cano donostiarrak "Esperanza y un alma rota" liburu Eibarren, Ahal Duguren egoitzan (Arragueta, 18). Liburuaren egilea genero-berdintasunean eta genero-indarkerian teknikaria izateaz gain, genero-berdintasunean hezitzailea ere bada eta liburu honetan indarkeria matxistaren inguruko kasu errealak bildu ditu. Eskubide sozialen aldeko borrokalari sutsua, hainbat elkarte feministetan hartzen du parte. Aurkezpenean liburuaren erosteko aukera egongo da (salmentari esker lortzen den dirua indarkeria matxistaren biktimei laguntza ematen dien Birsortzen elkartera bideratuko dute).



Irigoienaren argazkiak Topalekuan

Gaur arratsaldean, 19:00etan zabalduko dute Topalekuan Jose Luis Irigoienaren argazki erakusketa. Inaugurazio ekitaldia dela eta, ikustera doazentzat pintxo-potea egongo da (dohainik). Azaroaren 4ra arte egongo da ikusgai erakusketa, egunero 19:00etatik 21:00etara.

Andres de Egiguren orkestrak Aita Madinaren obretako bat estreinatuko du

Datorren barixakuan, 20:00etan Coliseo antzokian Andres de Egiguren orkestrak emango duen kontzertua aurkeztu zuten eguazten goizean Pedro Palacin zuzendariak eta Patxi Lejardi Kultura eta Euskera zinegotziak. Aurkezpenean azaldu zuten, Eibarko emanaldian Francisco Medina konpositore oñatiarraren "Gitarra eta soka orkestrarako erlijio-musikako kontzertua" izenburuko obra eskainiko dute musikariek, "mundu mailako estreinaldian".

Madinaren obraren inguruko ikerketan sakona egiten urteak daramatzen Palacin berbetan, "Aita Madinak sortuta

ko musika oso-oso ugaria da, baina bere obra batzuk estreinatu barik geratu ziren, horretarako denbora izan aurretik hil egin zelako. Coliseoan eskeiniko duguna horietako bat da. Vaticanoan estreinatu nahi zuten berak, abade zela 50 urte betetzen zirenean, baina obra hau eskutan zuela hil egin zenez estreinatu barik geratu zen. Pentsatzen dut Madinarentzat obra berezia eta oso garrantzitsua izango zela, horregatik aukeratu dugu estreinatzen lehen izateko". Kontzertuaren lehen zatian 15 hari-instrumentuk jardungo dute eta bigarrenean haizezko beste lau gehituko zaizkio orkestrari. Horrez gain, Eduardo



Pedro Palacin eta Patxi Lejardi herenegungo aurkezpen ekitaldian.

Baranzano nazioarteko kontzertistak lagunduko die gitarrarekin, bakarlarri gisa. Kontzerturako sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Debabarreneko Orfeoiaren kontzertu arrakastatsua Segovian

Zaldibarren estreinatutako "Lasaitasuna" izeneko ikuski-zunarekin joan ziren Segoviara Debabarreneko Orfeoiko kideak aurreko asteburuan, Justo eta Pastor santuen elizan kontzertua ematera. Debabarreneko Orfeoia (DBOR) Segoviako Coralía Artis lagunen abesbatzarekin batera eman zuen kontzertua, Coralía Artis VIII. Elkartasun Kontzertu Zikloaren barruan antolatutako emanaldian eta hiru zuzendarik jardun zuten: Jose Miguel Laskurain (DBOR), Montserrat De La Cruz (Coralía Artis) eta Clara Gil Abascal (zuzendari gonbidatua). Orfeoiko kideak oso pozik daude jendeak egin zien harrerarekin eta, gainera, Segoviako katedralean abesteko aukera izan zuten.

Bestalde, DBOR zuzentzeaz gain Bergarako Txistu Banda zuzendaria ere baden Jose Miguel Laskurainek "La transversalidad directorial en la dirección coral" izenburuko hitzal-



dia emango du bihar Burgosen, asteburuan han egingo den Abesbatza Zuzendarien Espainiako II. Kongresuan.

Euskaraldiarekin bat egin du Armeria Eskolak

Armeria Eskolako ikasleek udazken bukaeran burutuko den Euskaraldia babestu nahi izan dute eta dagoeneko euretako askok eman dute izena azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean martxan egongo den egitasmoan parte hartzeko, ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo rolen artean bakoitzak berea aukeratuta. Horrekin batera, aste honetan bertan aurkeztu dute eskolako "Hamaikakoa".



San Andres bertso-paper lehiaketa martxan



Azaroaren 8ra arteko epea izango dute San Andres bertso-paper lehiaketan parte hartu nahi dutenek euren lanak entregatzeko. 16 urtetik gorakoek lau puntu edo gehiagoko 6 bertso aurkeztuko dituzte gutxienez, eta irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta bigarrenak 250 eurokoa. 16 urtetik beherakoek bertso bat edo bi koplak aurkeztuko dituzte. Irabazleak liburua eta txapela irabaziko ditu, eta bigarrenak liburua eta plaka. Bertsoak postaz edo eskuz entregatuko dira ...eta kitto!-n, Urkizu 11 solairuartea. Sariak San Andres bertso jaialdian banatuko dira, azaroaren 25ean, domeka, Portaleko areto nagusian. Aurten Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Mendizabal eta Alaia Martin bertsolariak jardungo dute Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara.



A Contra Blues bihar ERMUAN kontzertuan

Bihar arratsaldeko 20:00etan "Blues power show from Catalunya" kontzertua eskainiko du A Contra Blues taldeak Ermuko Lobiano kultur etxean. "Ezin ahaztuko duzun" emanaldian orain aurkezten diharduten euren seigarren lanaz aparte, musika ibilbidean egindako 12 urteko lanaren emaitzaz gozatzeko aukera izango da. Zazpirehundik gora emanaldi eskaini ditu dagoeneko European Blues Challenge garaikurra lortu zuen boskoteak. Gaztelupeko Hotsak-en eskutik izango dira bihar Lobianon.



"Zoz pake santuan" gaur SORALUZEN

Txalo antzerki konpainiak "Zoz pake santuan" euskerazko antzezlan taularatu du gaur gauean, 22:15ean Soraluzeko Herri Antzokian. Emmanuel Robert-Espalieu da lanaren egilea eta, taula gainean, Mikel Laskurain eta Ane Gabarain antzezleek jardungo dute. Zuzendaria, berriz, Begoña Bilbao Lejarzegi da. Aurtengo udan estreinatutako lan honek umorez gainezka egiten du: "Daraman bikote bizimodu aspergarriekin amaitzeko, Andreak, zirt edo zart, gizona pozointzea erabaki du. Ekintza gordintze aldera, egin nahi duena aitortuko dio eta giltzapeturik dagoen etxe barruan azken orduak pasatzeko prest dago Andrea". Sarrerak 5 eurotan.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Teresa Zinkunegi Iza. 89 urte. 2018-X-10.
- Antxoni Murua Abaunza. 91 urte. 2018-X-10.
- Agueda Estala Amesti. 103 urte. 2018-X-13.
- Ana M^a Erreka Landeta. 82 urte. 2018-X-13.
- M^a Carmen Arrate Gandiaga. 68 urte. 2018-X-13.
- Amparo Fraile Nuño. 85 urte. 2018-X-14.
- Javier Bergaretxe Bustindui. 81 urte. 2018-X-14.

jaiotakoak

- Ziad Laouinate. 2018-X-12.
- Nor Ed Dabbat El Bakkal. 2018-X-13

farmaziak

- Barixakua 19
EGUNEZ Lökunberri (Isasi, 31)
- Zapatua 20
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Domeka 21
EGUNEZ Eloriza (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 22
EGUNEZ Iraundegi (Galbeton, 19)
- Martitzena 23
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguaztena 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 25
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Barixakua 26
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2018AN-

Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

3	5	7	8	9	4	6	1	2
1	9	8	6	7	2	4	3	5
2	6	4	3	5	1	8	9	7
5	7	1	4	6	9	3	2	8
8	4	3	1	2	5	7	6	9
9	2	6	7	3	8	1	5	4
6	1	5	2	8	7	9	4	3
4	8	2	9	1	3	5	7	6
7	3	9	5	4	6	2	8	1

1	7	9	5					
			2	7				4
	6							
		6		4		3		9
	4						1	
9		8		2		7		
						7		
8				3	2			
					1	8	5	3

telefono

jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 19

BULARREKO MINBIZIA

19:00. Aurrakoa Nazioarteko Eguna dela eta, larrosa koloreko lazo handia osatuko da, animatzen den jendearekin. Amaña es la Caña eta Minbiziaren Kontrako Elkartearen eskutik. Untzagan.

ZINE-FORUMA

19:00. "Mujeres del siglo XX", Mike Millsen filmaren inguruan, Pagatxaren eskutik. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Sarrera librea. Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Amiantoa. Osasun eta ingurumenean duen inpaktua". Hizlariak: Maria Valiente (Ahal Dugu) eta Jesus Uzkudun (ASVIAME). Euskadiko eta Eibarko Ahal Duguren Osasun arloak antolatuta. Ahal Duguren lokalean (Arragueta, 18).

DEBABARRENEKO GAZTA ASTEA

19:15. Oskar Trebiño eta Mikel Garaizabalekin. Udaletxeko patioan.

ANTZERKIA

20:30. "Por los pelos", Los Imprebis taldearen eskutik. 18 euro (12'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Erakusketak

Urriaren 21era arte:

- "EIBARKO BIZIKLETAGINTZA CARLOS NARBAIZA FUNTSAN" (Eibarko Armagintzaren Museoa)

Urriaren 28ra arte:

- URKI KIROL KLUBAREN ARGAZKIAK, 40. URTEURRENEAN (Untzagako Jubilatuta Etxea)

Azaroaren 4ra arte:

- JOSE LUIS IRIGOIENEN ARGAZKIAK (Topaleku)

Azaroaren 18ra arte:

- "EIBARKO EMAKUMEEN AZTARNAK" KOLEKTIBOIA (Portalea)

Zapatua 20

GIZAKIAREN ENIGMAK

10:00. Kongresuaren aurkezpena.
17:00. Bisita gidatua, Nerea Alustiza historialariarekin.
19:00. "Tiempo de hadas" irratsaioaren zuzeneko grabazioa. Portalean.

"JANA EZ DA TXANTXA"

11:00. V. bazkari solidarioa, Egoaizia eta Aldatzenen eskutik. Bidezko merkataritzako produktuen salmenta (16:00ak arte).
12:00. Umeendako sukaldaritza tailerra.
12:45. Ipuin-kontalaria.
14:30. Bazkari solidarioa. Untzagan.

DOKUMENTALAK

13:00. Jairo Berbelen "Raid Pandemonium"-en estreinaldia eta "Ibai, grande cuore" laburraren proiektzioa, AFESD elkarteari laguntzeko. 2 euro. Coliseoan.

AUTOBUSA

15:30. "Orain presoak" Donostian egingo den manifestaziorako. Ego Gainen.

UMEENTZAKO TAILERRA

17:30. "Zure koko-jantzia sortu", doan. El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan.

POESIA

19:00. Errezitaldia, Bizkaiko Artista Elkartearen eta Alberto Egia piano jolearekin. Itzamna poesia tailerraren eskutik. Untzagako jubilatuta etxean.

Domeka 21

DEBABARRENEKO GAZTA ASTEA

10:00/14:00. Gazta azoka, tailerrak eta erakustaldiak.
11:00/13:00. Ardiak kalean zehar eta erakusketa. Untzagan.

GIZAKIAREN ENIGMAK

10:30. Kongresuaren hasiera. Portalean.

KALEJIRA

11:00/12:30. Usartza txistulari bandarekin.

KONTZERTUA

19:30. The Tibbs taldea (Portalea Musika Kluba). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean.



Astelehena 22

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunen kontzentrazioa, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).

Martitzena 23

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HAMAIIKA BERBALDI

19:00. "Zer gertatzen da urriaren 31n, iluntzen duenean?" hitzaldia, losu Ozaita eta Jaime Altunaren eskutik. 4-8 urte bitarteko umeentzat zaintza. AKEBAIK antolatuta. Portalean.

Eguaztena 24

LIBURUTEGIAREN EGUNA

10:00, 12:00, 17:00 eta 19:00. Bisita gidatua. Juan San Martin liburutegian.

HERRI BATZARRA

19:00. Eibarko Sortuk deituta. Gaiak: Arrateko jaiak, 2018/19rako erronkak eta barne prozesua. Arrate Kultur Elkartearen.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

LIBURU AURKEZPENA

19:30. Maite Canoren "Esperanza y un alma rota". Eibarko Ahal Duguren lokalean (Arragueta, 18).



Eguena 25

TOPAKETAK

09:00/17:00. Osasun-zientzietako Ikertzaileen III. Topaketak, UEUren eskutik. Markeskuan.

BILERA

19:30. Jaioberritan lapurtutako haurren inguruko bilera irekia. Portalean (bilera gelan).



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, UNAI, gure dantzari eta parrandero txikixa, bixar 3 urte beteko dozulako. Patxo pillua etxekuen partez.



Zorionak, MIKEL, datorren astian 14 urte beteko dozuz-eta. Musu bat etxekuen eta lagunuen partez.




Zorionak, PAUL Urizar Arruti, martitzenian 8 urte egin zenduazena-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, AIORA!!, atzo 7 urte bete zenduazena-eta!! Jarraitu beti bezain alai. Pillua maite zaittugu.



Zorionak, EKHI Irisarri, haraiñegun 9 urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARGA, famelixa guztiaren partetik!!



Zorionak, MANEX! Domekan 4 urte zoragarri beteko dozuz-eta! Etxekuen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
20an: 19:45, 22:30
21ean: 20:00
22an: 20:30

"Ola de crímenes"

Zuzendaria: Gracia Querejeta



(2 ARETOAN)
20an: 17:00, 19:45, 22:30
21ean: 17:00, 20:00
22an: 20:30

"La sombra de la ley"


Zuzendaria: Daniel de la Torre



(ANTZOKIAN)
20an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
21ean: 17:00^(1 Aretoa), 20:00
22an: 20:30

"Miau"

Zuzendaria: Ignacio Estaregi



(ANTZOKIAN)
20an: 17:00
21ean: 17:00

"Christopher Robin"

Zuzendaria: Marc Forster



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai T. Etxebarrian. 3 logela, egongela, jangela, 2 komun eta 2 balkoi. 100 m². Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-258913.
- Erreforma osoa behar duen pisua erosi nuke Eibarren. Tel. 670-793312.
- Errioxako Santo Domingo erdigunean pisua salgai. Berritzeko. Prezio onean. Tel. 675-803734.

1.2. Errentan

- Emakume batek (alabarekin) pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Gehienez, 550 euro ordaintzeko prest. Tel. 667-034344.
- Bikoteak 2-3 logelako pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Ahal dela igogailuarekin. Tel. 633-868143 eta 649-538289.

2. Motorra

2.1. Salgai

- 1999 Volkswagen Passat V 1.9 TDI salgai, egoera onean. 1.800 euro negoziagarriak. Tel. 678-075299.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Nagusiak zaintzeko ikastaroa eginda. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean edo gauz nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-554004.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko: igeltsero jardun, nagusiak zaindu... Tel. 699-535728.
- Mutia eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-222362.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-200936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 698-696194.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 653-381798.
- Gizona eskaintzen da baserriko lanak egiteko eta gizon nagusiak zaintzeko. Tel. 632-271530.
- Neska eskaintzen da kamarera lan egiteko. Esperientzia. Tel. 683-511935.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-879954.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-569395.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 634-215907.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-406654.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.
- Mutia eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Diputazioak eskatzen duen akreditazioarekin. Tel. 631-979555.
- Mutia eskaintzen da eraikuntza lanetan laguntzaile. Tel. 674-579736.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-925525.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 643-464072.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-768803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-127969.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-502177.
- Mutia eskaintzen da pintore lanak egiteko. Barruan zein kanpoan. Tel. 600-202516.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 653-270698.
- Emakumea eskaintzen da umeak eskolara eramane eta eskolatik ekartzeko. Tel. 625-200924.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 685-036902. Adriana.
- Mutil arduratsua eskaintzen da sukaldari jarduteko. Esperientzia. Tel. 622-321095.
- Mutia eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-103356.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta ume, nagusi edo gaixok zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-372153.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta ume, nagusi edo gaixok zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-472167.
- Emakumea eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-733573.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 675-965130.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 605-598999.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 619-906093.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-677230.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 631-975260.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 600-335778.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 617-810972.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: pegorak, pisuak... Tel. 631-141454.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: pisuak, pegorak... Tel. 651-864873.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 631-532426.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 612-476921.

4.2. Langile bila

- Ilea-paintzailea behar da lanaldi erdirako. Tel. 619-928881.
- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-616608.
- Hortz-higienista behar da Ermuko hortz-klinika batean. Bidali curriculum: clinica-dentalbajodeba@hotmail.com
- Banatzailea behar da Eibarko taberna batean asteburuetarako. Motorraren. Tel. 686-360604.
- Emakumea behar da adineko emakumea zaintzeko. Behar-beharrezkoa Diputazioak eskatzen duen akreditazioa izatea. Ordu-tegia: 09:30/11:30 eta 20:30/21:30. Tel. 646-206088.
- Psikologoa behar da Eibarren zentru psikotekniko batean lan egiteko. Idatzi: maria-suncc@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingeleseko C2 maila duen gazteak klase partikularrak ematen ditu. Esperientzia. Merke. Tel. 690-025579.
- Neska euskalduna eskaintzen da Matematika, Fisika eta Marrazketa klaseak emateko. Baita umeak zaintzeko ere. Tel. 688-678199.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ehirazako bi eskopeta (ia berriak) eta txakurrendako bi kaxa salgai. Tel. 649-258913.
- "Ecotermi" berogailua salgai (13 elementuak). Programagarria da. Egoera onean. 150 euro. Tel. 626-144098.

6.2. Eman

- Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 722-222338.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Zilarrezko belarritakoa galdu nuen Eibar erdialdean. Swarovski kristal urdinarekin. Tel. 677-094907.

6.4. Bestelakoak

- Erdialdeko garajearen erabilera Urkizuko beste batekin trukatu nuke. Tel. 676-069244.

Hyundai KONA Gama Berria.

14.610€-tik aurrera



Hyundai KONA elektrikoa iritsi da. Lehenengo SUV konpaktu elektrikoa, 482 km-ra arteko autonomiarekin.

Zugan inspiratu gara berriro. Bizitza ikusteko duzun moduan. Oraina mugarik gabe bizi duzu, eta etorkizunarekin arduratzen zara. Horregatik sortu dugu Hyundai KONA elektriko Berria. SUV konpaktu elektriko paregabea, ezaugarri sineztezinekin:

- Bi bateria-aukera:
39,2 kWh-ko bateria, 136 cv (100kW) eta 312 km-ra arteko autonomia*
64 kWh-ko bateria, 204 cv (150 kW) eta 482 km-ra arteko autonomia*
- Karga azkarreko aukera: bateriaren %80-ra arteko birkarga ordubetean.
- 0 km/h-tik 100 km/h-rako azelerazioa 7,6 segundotan.

Hyundai KONA elektriko Berria hain kotxe paregabea da beste KONA baten antza bakarrik izan dezakeela. Hyundai-rekin gama erabat desberdinaz gozatu duzu.

Hyundai KONA Gama Berria. Zuk inspiratzen duzu. Zuk gidatzen duzu.

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30



5 DE GARANTÍA SIN LÍMITE **8** GARANTÍA DE BATERÍA

Hyundai KONA EV Gama: CO₂ emisio konbinatuak (gr/km): 0 erabileran. Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 139 (39,2 kWh bateria) - 143 (64 kWh bateria). Autonomia (km)*: 312 (39,2 kWh bateria) - 482 (64 kWh bateria). Hyundai KONA Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-158 Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2-7. PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan KONA 1.0 TGD1 86,3kw (120 CV) 4x2 ESSENCE M Y19 (14610€), BEZ, garrasiak, matrikulario-zerria, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza baine. Hyundai-ra Aldaketa Plana aplikatu daiteke erabilirik auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienez epean eta 36 hilabeteko gutxienez egonaldiarekin. Finantziakoa finantza-erakundeak aztertu eta onartu behar du. Eskaintza 2018/10/31ra arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: KONA EV Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziakotzari lotua. Tentsio situazio bateriarerantz Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala eta 200.000 km-ko 8 urtekoa (behindatuz gertatzen dena) Hyundai-ren sare ofizialeak salduzko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporterekin arabera. Kontsultatu ezazu eskaintza, mantenimendua eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionario sarean edo www.hyundai.es orrian. *Autonomia ofiziala WLTP gidatze Ziklo Berriaren arabera. Autonomia erreala gidatze moduak, egoera klimatikoak, errepidearen egoerak eta aire guturuaren edo berogailuaren erabilera baldintzatuko dute.

Kultu: 24 urte eibartarren zerbitzura

ZULOAGATARREN, 3 TEL. 943 20 84 39



Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabilti.

2 mó graduatu
erreflexuen aurkako lenteekin

99€

www.multiopticasgipuzkoa.com



Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Ordizia • Tolosa

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan